

**TRADUTTORE CREATORE.
ZENBAIT GOGOETA ITZULPENEN
EGOKITASUNARI BURUZ**

Xabier KINTANA

Noam Chomskyk eta gramatika-sortzailearen eskolakoek dioskutenez, gizaki guztiok mintzamen-oinarri berbera omen daukagu, genetikaz burmuinean sortzetik ezarria, eta hori hizkuntza guztien sakoneko egituretan ageri omen da. Beraz, horren arabera, hizkuntza batean esaten den guztia beste batean ere errepika daiteke, horretarako, inoiz kanpoko egituretan aldaketa batzuk egin behar izaten diren arren. Honek, jakina, munduko giza mintzaira guztien funtsezko berdinkidetasunaren alde egiten du. Xalotasunez esanik, teoria ederra bezain egokia da lagun hurkoenganako estimua eta askok nahi genukeen kultura eta zibilizazio arteko errespetu hori lortzeko bidean, baina praktikara eramatean arazoa sinets ezineko punturaino korapila daiteke, batez ere hizkuntza bakoitzaren barne berezitasunekin topo egiten dugunean, estrukuralistek hainbestetan azpimarratu dutenez.

Izan ere, mundu-ikuskeraz ezberdinean oinarrituriko kontzeptuak mintzaira batetik bestera iraganarazteko orduan, maiz oztopo gaindigaitzak aurki ditzakegu, eta hizkuntza batean esandako guztia beste batean ere, azalpenen bidez edo, eman daitekeela egia den arren, batetik besterako iragaitza horretan gauza asko gelditu daitezke: hitz-jokoak, ñabardurak, konnotazioak, aliterazioak, errimak edota jatorrizko mintzaira horien hiztunentzat iradokizunez beteriko berbak, itzultzerakoan alferrik eta erremediorik gabe galduak. Orduan gogoratzen ohi gara aspaldiko esan horretaz –feministei zor zaien errespetuagatik modu neutralagoaz aipatuko dudana–, hots, itzulpenak, nolabait, pertsonak bezalakoak direla: ederrak direnean, ez direla fidelak, eta fidelak direnean, ordea, ez direla ederrak izaten. Bide beretik eta arrazoi berberengatik heldu da, zalantzarik ez, italiarrek hitz laburrez *traduttore tra-*

dittore aipaturiko esaera ezaguna¹, hori ere, derradan bidenabar, hain laburki beste hizkuntza batera ezin alda daitekeenaren etsenplu bikaina, zentzua eta hoskidetasuna batera gordeko badira.

Aspaldi honetan, bestalde, badirudi mendebaldean behintzat, itzultzailearen lana gutxiesteko joera ageri dela, sortze-lana baino maila apalagoko zerbait balitz bezala, gorago ezin hel daitezkeen zeregin gisa. Aski genuke, ordea, historiari behako bat egitea gutxiespen hori iritzi erabat berri eta mugatua dela kontura gintezen. Iragan mendeetan itzultzaileen lanari meritu handiko irizten zitzaion, eta ez, soilki, zibilizazio, kultura eta zientzien artean ezartzen zituzten zubi baliotsuengatik, itzultze-lanari berari guztiek aitortzen zioten zailtasunagatik baizik. Denbora zaharretako idazle gorenak, beren baitako sormena originalki lantzeaz gainera, ez zuten inolako higuinik erakusten inoren obrak ere beren hizkuntzetara emateko. Eta Europaren ekialdeko idazle handienen artean ohitura horrek orain arte dirau, idazleztaren zeregin osagarri eta ohorezko gisa.

Ez, ez da beti hain erraza itzultze lana. Eta arlo honetan ere zenbat buru hainbat aburu delakoa azaltzen zaigu, hizkuntz aldaketa egin behar duenaren jakituria, sentiberatasun, inspirazio, trebetasun eta irizpideen arabera. Horrexegatik, mintzaira batetik bestera edozein perpaus labur ematean itzultzaile bezainbat itzulpen ezberdin gertatzen direla esperientziak jakinda, gauza egiaztatu gabeetan fede handirik ez dugunoi behintzat, zail egiten zaigu Testamentu Zaharraren Hirurogeita hamarren itzulpen mirarizkoan sinestea, hirurogeita hamar lagunek, nork bere kontutik eta bakarka Biblia osoa hebreeratik itzultzen hasi eta azkenean guztiak grezierazko emaitza berbera eskaintzera heltzea fantasia guztien gaineko zerbait da eta.

E PUR SI MUOVE

Baina halere, praktikan beti gertatzen diren ezberdintasunak gorabehera, gizakia gizaki denetik, itzulpenak izan dira munduon: gaur, atzo eta herenegun ere bai. Jakina denez, Mesopotamiako hizkuntza batzuk, aldameneko

¹ Zaharra behintzat bada esaera hori, baina agian jatorriz ez da italiarra. Joachim du Bellay-k, adibidez, hauxe dio bere *La deffence et illustration de la langue françoise* liburuan: “*Mais que diray-je d’aucuns, vrayement mieux dignes d’estre appellés Traditeurs, que Traducteurs?*” ‘Eta zer erran dezaket itzultzaile ez baina traidore deituak izatea gehiago merezi duten zenbaitez?’ VI. kap. hasieran, 1549. Esaera bera aipaturiko itzultze-zailtasunaren eredu ederra da, italieraz ez bezala, esaera hori gaurko frantsesean jada hoskidetasun berberaz ezin emana baita, behialako *traditeur* hura gaurko frantsesean *traître* esaten da eta.

beste batzuetan zuten itzulpen-isladari esker ezagutu eta ulertu izan dira, jende ezberdinentzako lege eta agindu-testu itzulien bidez. Izan ere, antzinako inperio askotan hizkuntza ezberdinetako jendeak biltzen ziren eta horietako batzuetan behintzat elebitasuna eta are eleaniztasun ofiziala ere ohiko praktika izaten zen, eta, beraz, itzultzaile ofizioa ere bai. Mesopotamian adibidez, gaurko Iranen mendebaldeko Zagros mendietan Behistun-go harkaitza aurkitzen da, horko harrian zizelaturik, Kristo aurreko 500. urtean Dario erregeak lege-testu hirueleduna jarrarazi zuen, bere inperioko hizkuntzetan, hots, persieraz, elameraz eta akadieraz².

Horrelaxe heldu zaizkigu, adibidez, Testamentu Zaharreko pasarte batzuk. Uholde unibertsala, adibidez, Mesopotamiako zibilizazio zaharretako narrazioetan aipatzen da, Gilgamed eraldoiarekin batera. Josef-ek, Jakob-en semeak, Putifar-en emaztearekin izan zuen maitasun-enderdoa faraoien garaiko papiro batean ere aurkitu da, Egipton ahoz aho zebilen anekdota baten oihartzun. Eta istorio biok, Biblia idatzi baino lehenagokoak ditugu. Eta Egipto aipatua dugunez gero, ezin dezakegu ahantz, Rosettako harri ospetsua³, 1799an Napoleonen tropek aurkitua, Egiptoko hizkuntza zaharraren bi idazkeraz gainera (hieroglifikoa eta demotikoa), grezieraz ere izkiriatua. Azken hizkuntza ezagun honi esker, egiptoera zaharraren aldaera berriaz baliatuz, hots, koptoeraz, eta irudimena eta metodologia zehatza erabiliz, Jean-François Champollion-ek, Thomas Young ingelesaren urratsen atzetik abiatuta, azkenean hieroglifikoen barruan ezkutatzen zen hizkuntza argitu ahal izan zuen 1822an inguruan.

Gauza bera gertatu da, halaber, juduen Torah-ko esaera zahar askorekin, hebreeraz *Miše* מִשְׁלֵי deiturikoekin. Berorietako batzuk Sumer eta Babiloniako testu zaharretan ere agertzen dira, eta denboraz Ekialde Hurbileko aho-literaturako altxor barreiatua izatera heldu zen, hebrear idazleek bildu, itzuli eta beren liburu saildian finkatu arte. Ondoren, mendeetan zehar, Europako eta are munduko hizkuntza guztietara hedatu dira, hasieran predikazioaren bidez eta azkenean Bibliaren itzulpen ugarietarako.

² Testu hirueledunari esker, eta persiera zaharra jadanik aski jakina zelako, Henry Greswicke Rawlinson britainiar ofizialak 1835-1851 artean beste mintzaira biak dezifratzea lortu zuen. *Ikus* KRAMER, Samuel Noah, *La cuna de la civilización*, Time-Life books, Amsterdam, 1981, 119-137 orr. eta CLAIBORNE, Robert, *El nacimiento de la escritura*, Time-Life books, Amsterdam, 1979, 46-70. orr.

³ Gure artera eskuarki *Rosetta* gisa heldu den herriaren izena, bere jatorrizko hizkuntzan, hau da, arabieraz, *Rashid* da. Champollionek hieroglifikoen gakoa aurkitzeko erabilirikoa metodorako, ikus CASSON, Lionel, *Egipto antiguo*, Time-Life Books, Amsterdam, 1980, 149-157. orr.

Gugandik hurbilago, Flavio Josefo historialari juduak, bere *Juduen Gerretan* (V, 195-197) kontatzen duenez, Jerusalemeko tenpluaren inguruko burdinazko hesiaren sarreran baziren, ikusgai jarririk, harlanduzko lauza handi batzuk, grezieraz eta latinez idatziak, atzerritarrei barruti santu hartara ez sartzeko aginduz, hiltzeko mehatxupean⁴. Bibliak berak izkribu eleanitzaren beste etsenplu bat eskaintzen digu⁵: Jesus Golgotan iltzatu zutenean, gurutzearen goiko aldean izkribu bat ezarri zen isekaz, “Hau juduen erregea da” testua hiru hizkuntzatan emanik: hebreeraz⁶, hots, יהושע הנצרי מלך היהודים *Yešú‘ hannotz’rí mélek hayy’hudim*, grezieraz Ἰησοῦς ὁ Ναζωραῖος βασιλεὺς τῶν Ἰουδαίων eta latinez: *Iesus Nazarenus rex iudaeorum*⁷.

Erdi Aroko lehen frantses testuak ere, hots, *Les serments de Strasbourg* ‘*Strasburgeko zina*’ bederatzigarren mendearen erdialdean Frantziako Karol II.a Burusoilak eta bere anaia Ludwig Germaniarrak bien anaia Lothario I.aren aurka sinatuak, bi hizkuntzatan agertzen zaizkigu, hau da, frantsesez eta alemanez. Donemiliaga Kukulako itzultzaileei esker ezagutzen ditugu, halaber, mende bereko lehenbiziko erdal eta euskal glosak ere.

Baina itzul gaitezen Bibliara. Horren lekukotasunari esker, jakin badakigu leku eta garai urrunetako gertaera, pasadizo, kontseilu, atsotitz, ipuin eta are errezeta batzuk ere gureganaino nola heldu diren, izkribuak

⁴ Neure adiskide Mordekhai Mishor-ek, Israeleko Hebrear Hizkuntzaren Akademiakoak, Jerusalemetik bidali didan ohar batean diostanez, Misnah-ren arabera, hesi horrek 500 x 500 ukondotako hedadura inguratzen zuen (gutxi gorabehera, gaurko 250 x 250 metro). 1936 eta 1970ean tenpluaren inguruan egindako indusketetan harlanduzko bi izkribu erraldoi aurkitu ziren, bata oso-osorik eta bestea hautsirik, biak grezieraz idatziak, esandako abisu horiekin. Horietako bat Jerusalemeko museoaan ikus daiteke.

⁵ Ikus Joan, 19,20: και ην γεγραμμένον Ἑβραϊστί, Ῥωμαϊστί, Ἑλληνιστί/ et erat scriptum hebraice graece et latine.

⁶ Gorago aipaturiko M. Mishorrek ohartarazi didanez, antzinako greko eta erromatarrek, dirudienez, ez zuten garai hartan ezberdintasun handirik egiten hebreera eta arameeraren artean, semitar hizkuntza senide eta oso hurbil horiek haientzat erabat ulertezinak izaten zirelako. Horregatik bada Ἑβραϊστί *ebraití* greziar hitzak, era berean, arameeratzat uler daiteke, eta kasu horretan, eskuarki Jesusen gaineko testua hebreeraz ematen den arren, garai hartako arameeraz honelako zerbaite izan zitekeen: יהושע נצריא מלך יהודי hau da: Yešú‘ natz’rayá mélek y’hudayé.

⁷ Latinezko esaldia ohiko laburpen ezaguna I.N.R.I da, dirudienez lehen aldiz IV. mendearen aldean Frantzia aldean aurkitua. Horregatik harridura logikoa sorrarazi du Arabako Iruñean aurkituriko Jesus gurutziltzatuaren gainean agertu den R.I.P. bitxi horrek -izkribua horrela irakurri behar bada behintzat-, kristau batek egina izateko, berez, blasfemiatzat har litekeena.

edota predikazioak direla medio, baina badira beste kontakizun mitologiko batzuk, tokian tokiko eranskinez osatuak, iturburuko jatorri ezaguna gora behera, herri mailaraino era ilunagoetatik iritsiak. Lehenen artean Euskal Herrian Samson-en herri-ipuin ugariak genituzke eta, aldiz, bigarrenen sailean Tartalo eta artzainaren gertakaria.

Izan ere, gaur edozeinek ikus dezake gure Tartalo “jator” horrengan behialako Homero handiak bere Odisean kanta-kontatu zuen Polifemo haren oihartzuna, Markinako herri-ipuinetan *Alarabia* bilakatua⁸. Besterik da, ordea, pertsonaia hori zer nolako bide-zidorretatik heldu zaigun asmatzea. Eta itzulpen-mitzulpen kontuaz ari garenez gero, zilegi bekit hemen Mediterranioko erraldoi begibakar honen istorioaz zenbait gogoeta egitea.

NADIE NORBAIT DENEAN

Guztiok dakigunez, ziklopeak nola zeritzon galdetu zionean, Ulises maltzurak bere egiazko izena barik, gezurrezko bat eman zion, eta engainu horrek, hain zuzen, geroago bizia salbatuko zion. Hegoaldeko euskaldun gehienok orain arte gaztelaniaz irakurri dugun itzulpenaren arabera Polifemoren galderari honela erantzun zion Itakako erregeak:

“mi nombre es Nadie; y Nadie me llaman mi padre, mi madre y mis compañeros”.

Geroago baina, Ulisesez eta haren lagunek ziklope hark guztiak bere haitzuloan sartu eta beren lagunak jaten hasi zela ikusirik, handik bizirik irteteko, erraldoi gizajale hura mahatsaren zukuaz mozkorrarazi eta lo zegoela begi bakarra erre zioten. Haien oihuak entzutean baina, haren haitzuloaren ondora inguruko ziklopeak heldu ziren, testuak dioenez.

⁸ Artikulu hau ia amaiturik neukala, Jabier Kaltzakorta adiskidearen prestalanari esker, William Rollo eskoziarraren *The Basque Dialect of Marquina*, lehen aldiz Amsterdamen 1925ean agertua, berrargitaratu du Labayru Ikastegiak (Bilbo, 2006). Liburu horren azken aldean Rollok XX. mendearen hasieran Markinan jasoriko herri ipuin batzuk datoz, eta horietako bitan ere *Alarabie, gigantian eta gison-jatallian ipuñe* (12T) eta *Lamiñek* (16T), Odisearen pasarte honen zantzo garbiak ageri dira. J. Kaltzakortak oraingo berredizioa, eranskin interesgarri batzuekin hornitu du, bere garaiko euskalariak obra horretaz eginiko aipamen, iruzkin eta kritikekin. Horien artean Azkuek, W. Rollori RIEVen, 1925, XVI, 563-569 orr. egin zion kritika mergatza dator, eta esandako ipuin horiek Odisearekin duten lotura azpimarratzen du (XLIII. or.).

Llegaron muchos [cíclopes] de las cuevas de las montañas y le preguntaron: “¿Qué te pasa Polifemo? ¿Por qué nos has despertado con tus gritos? ¿Es que te ataca alguien o estás próximo a morir?”

El terrible Polifemo respondió: “Ay de mí! Nadie me amenaza, Nadie me mata”.

“Pues entonces –dijeron los otros– ¿qué quieres que hagamos nosotros? Contra los males que envía Júpiter nada podemos. Pide a tu padre, Neptuno, que te ampare y proteja”.

Nada más dijeron, e inmediatamente abandonaron el antro...⁹.

Hor, dakusagunez, *nadie* berbaz hitz-jokoa egiten da, berez izenordain zehaztugabea dena, pertsona-izentzat harturik. Izan ere, kasu honetan behintzat, gaztelaniaz oso erraza izan da grezierazko jatorrizko testua –gaztelauen artean segur aski latinezko itzulpenaren bitartez ezaguna–, iturburuko jokoa eta guzti ematea

ΟΔΥΣΣΕΙΑ

ODYSSEA

Ουτις εμοι γ'ονομα: Ουτιν δε με κικλησκουσι
Μητηρ ηδε ρατηρ ηδ'αλλοι παντες εταυροι.

Nemo mihi nomen est : Neminemque me vocant
Mater atque pater, atque omnes alii socii.(366-367)

.....

.....

Τιπτε τοσον Πολυφημι' αρημενος ωδ' εβοησας
Νυκτα δι' αμβροσιην και αυπνουσ αμμε τιθησθα;
Η μη τις σευ μηλα βροτων αεκοντος ελαυνει;
Η μη τις σ' αυτον κτεινει δολωι ηε βιηφιν;

Quid tantum Polypheme laesus sic clamasti
Noctem per divinam, et insomnes nos facis?
An ne quis te oves mortalium invito abigat?
An ne aliquis teipsum occidat dolo aut vi?

Τους δ' αυτ' εξ αντρου προσεφη κρατερος Πολυφημος:

Hos rursus ex antro allocutus est fortis
Polyphemus

Ω φιλοι, Ουτις με κτεινει δολωι ουδε βιηφιν.

Amici, Nemo me occidit dolo, neque viribus.

Οι δ' απαμειβομενοι επεα περοεντ' αγορευουν:

Illi vero respondententes verba volatilia dixerunt:

Ει μεν δη τις σε βιαζεται οιον εοντα,

Si quidem Nemo tibi vim infert solus cum sis,

Νουσον γ' ου πως εστι Διος μεγαλου αλεασθαι,

Morbum quidem nullo modo licet Jovis magni
effugere:

Αλλα συ γ' ευχεο πατρι Ποσειδαωνι ανακτι.

Sed tu precare patrem Neptunum regem.

Odyssea, IX. kantua (404-412)

⁹ Homero, *La Odisea*², Ed. Mediterraneo, 1986, Madrid. 95-96. orr

Agiri denez, grezierazko οΥΤΙΣ, latinezko *nemo* eta gaztelaniazko *nadie* izenordainen artean kidetasun handia dago, bai esanguran eta bai erabileran ere. Espainierazko itzulpen hori urte askotako tradizioaz horrela finkatua da, baina jendeak, jada horretara ohiturik dagoelako, horri erabat berezko eta normal iritzi arren, hasieran behintzat itzultzaileari behintzat zer pentsa eman beharko zion, ez baita, berez hain “normala”, laster ikusiko dugunez.

Espainol arruntean norbaiti inork ez diola kalterik egiten esateko ohiko perpausa ezezko partikularekin hasten da eskuarki, eta ¿*Quién te ha hecho daño?* galderari *No me ha hecho daño nadie* erantzuten zaio normalean. Noski, bestea ere posible eta erabat gramatikala da, hots, esaldia *nadie*-rekin hastea, *nadie me ha hecho daño* alegia, baina, ohiko hizkuntza mintzatuan behintzat, ez da hain normala eta nolabaiteko enfasi kutsua dario. Hortaz, itzultzaileak esamolde bien artean hautatu behar izan zuen. Eta, egia esan, ez zuen aukera handirik, gaztelanian *nadie* izenordainarekin eratzen diren per-pausek erregela hertsia bete behar dutelako: *nadie* aditzaren aurrean jartzen bada, aditzak baiezkotik eran joan behar du (*Nadie viene, nadie dice eso, nadie compra, nadie sabe nada, a nadie se lo cuenta...*) baina *nadie* aditzaren atzean joanez gero, ordea, aditzak ezezko era hartu behar du nahitaez: *no viene nadie, eso no lo dice nadie, no compra nadie, no sabe nadie nada, no se lo cuenta a nadie...* Beraz, *nadie* izenordain zehaztugabea *Nadie* ustezko pertsona-izenarekin nahasi eta gaizki-ulertua sortzeko, beharrezkoa zen aditza ezezko-rik gabe ematea, hots, *Nadie me mata*, beste kasuan *me mata Nadie* esan beharko bailitzateke, eta hor argi legoke *Nadie* hori izen horretako ‘norbaik’ dela, *Nadie* izena *nadie* izenordaina zela ulertaraz ledin, *no me mata nadie* izan beharko luke eta¹⁰.

Frantsesez ere antzeko problema gainditu behar zuten itzultzaileek. Hona hemen testua:

¹⁰ Eta noski, *no me mata nadie* esanez gero, gramatika aldetik ondo legokeen arren, Ziklopeak benetan adierazi nahi zuenaren kontrakoa esango luke, eta berben arteko joko ezereztu. Oso antzeko hitz-jokoaz baliatzen da ari da Euskal Herriko argitaldaria ezagun bat ere, bere liburu-dendetara erosten joatera gomendatzen duelarik, "Elkar ezagutzen dugulako" esaldia eranstea. Hor, bistan denez, perpausa bitara uler daiteke, a) ‘batak bestea ezagutzen dugulako’ zein b) ‘Elkar deritzon enpresa hori ezagutzen dugulako’, bietan lagun arteko eta konfiantzako mezu atsegina igorritz. Algortan, berriz, bada haur ikastetxe bat, Juan Bautista Zabala euskaltzalearen izena daramana. Horren sarrerako horma batean hau irakur daiteke: “Etorkizuna Zabala da”.

ULYSSE: - ... C'est Personne, mon nom: oui! Mon père et ma mère et tous mes compagnons m'ont surnommé Personne...

(.....)

LE CHOEUR.- Polyphème, pourquoi ces cris d'accablement? ... pourquoi nous réveiller en pleine nuit divine?... serait-ce ton troupeau qu'un mortel vient te prendre?... est-ce toi que l'on tue par la ruse ou la force?

De sa grosse voix, Polyphème criait du fond de la caverne:

POLYPHÈME.- La ruse, mes amis! La ruse! Et non la force!... et qui me tue? Personne!

Les autres, de répondre avec ces mots ailés:

LE CHOEUR.- Personne? ...contre toi, pas de force?... tout seul?...c'est alors quelque mal que te vient du grand Zeus, et nous n'y pouvons rien: invoque Posidon, notre roi, notre père!¹¹

Kasu honetan, espainolez ez bezala, frantses itzulpenak ezin du greziezko edo latinezko esaldia osorik eman, *personne*, aldamenean aditza daramanean, beti ezetzarekin doalako (*personne ne le sait pas, personne ne viendra jamais, elle ne connaît pas personne...*), eta kasu horretan, *personne* baiezkoko aditz batekin erabiliz gero, izenordaina barik egiazko 'persona' bat dela nabarmen geldituko litzateke eta. Beraz, hor ere, hitz-jokoa gordetzekotan, itzulpen posible bakarra *personne* soila erabiltzea da.

Gatozen orain euskarara. Homeroren obra horretatik bi itzulpen aipatuko ditut, gure itzultzaileen trebetasunaren ispilu: Bata Santi Onaindiarena, eta Juan Kruz Igerabiderena bestea. Lehenak testu osoa dakar, bigarrena, aldiz, moldaera laburtua da, gatzetxoentzat egina. Logikoa denez, itzultzaile biak bat datoz euskarara Ulisesen gaitzizena ematean : *Inor-ez*, alegia. Halere, horretaz baliatzeko orduan, oso joera ezberdina izan dute¹².

¹¹ *Odyssée*, Homère, Traduction de Victor Bérard, Le livre de poche, Paris, 1960.173-175 orr.

¹² Euskarazko *inor* hitza, barneraiketaz inolako arazorik gabe, behialako **ez-nor** > *enor* > *inor* bilakaeratik heldua da (Cfr. alde batetik *ezer*, *ezein* eta bestetik *ehor*, *nehor* aldaerak), eta jatorriz, bere baitan ezezko partikula darama, baina gaurko hiztun nagusiek ez dute hori sentitzen, ezezko kasuetan beste ez bat eranstea nahitaezkoa izanik. Ikastolako haur batzuek, ordea, agian erdaren eraginez, *Nor etorri da?* galderari maiz "Inor" soilaz erantzuten diote. Latinez ere *nemo*, azken buruan *nehemo* (< *ne-homo*) formatik omen dator. Hor garbi ageri da hizkuntza askotan bide berbera erabili izan dela era honetako izenordainak eta adizlagunak sortzeko orduan, hots, 'ez' esan nahi duen partikula eranstea. Cfr. georg. ვინ *vin* 'nor' არავინ *aravin* 'inor ez', რა *ra* 'zer' / არაარა *arara* 'ezer ez', არა *ara* 'ez'; errusierazko кто *kto* 'nor' / никто *nikto* 'inor ez', что *cto* 'zer' / ничто *nichto*

Hona hemen Onaindia pasiotarraren itzulpena, Bizkaiko euskarara egina:

Aren aldarri-oiuak entzunaz, asko joan yakoazan, urlia emendik eta sandia handik, eta arpe aurrean geldi, zek naigabetzen eban itaundu eutsoen:

***Kiklopeak:** Zergatik ain asarre, Polifemo, olan deadarka zaukaguz jainkozko gau onetan, guztiok itxartu gaituzula? Gizakiren batek bear bada, zeuk nai ezta, ardiak daroatzuz? Edo-ta, apika, maltzurkeriz ala indarrez il gura zaitue? Polifemo zangarrak, arpetik, erantzun entsen:*

***Polifemo:** -O adiskideak! Iñor-ezek ilten nau iruzurrez, ez indarrez.*

Eta areik erantzun, solas oneikaz:

***Kiklopeak:** -Iñok indarrik ez badagizu, bakarrik zagoz-eta, ezina da Zeus aundiak bialdutako gaixoari alde egitea; otoiztu, alan be zeure aita, Posidon goiena.*

Alkar-izketa bukatutakoan, danak joan ziran¹³.

Hemen itzultzaileak, euskararen senaren arabera, *Inor-ez* pertsona izentzat harturik, ergatiboz jartzean *Inor-ezek* bihurtu du, eta ez *Inork-ez*¹⁴. Hori, noski, zuzena da erabat hizkuntzaren aldetik, baina, tamalez, horrela egitean jatorrizko testuko hitz-jokoa guztiz deseginik gelditzen da. Are gehiago, «Inor-ezek hiltzen nau » aditzean, ziklope lagunek berehala ulertu behar zuketean *Inor-ez* izeneko norbaitek ziharduela haien senidea hiltzen, eta istorioaren haria aldatuz, bertan gelditu beharko zuketean, hari laguntzeko prest.

‘nor ez’; alem. *jemand* ‘norbait’ / *niemand* ‘inor ez’, *ein* ‘bat’ / *kein* ‘bat ere ez’; ingl. *anybody* ‘norbait’ / *nobody* ‘inor ez’, *ever* ‘beti’ / *never* ‘noiz ez’; esp. *alguno* / *ninguno*. Izenordain eta adberbioez gainera, formula bera erabiltzen da anitz hizkuntzatan aurkako adjektiboak sortzeko: Cfr. georg. სრული *sruli* ‘oso’ / არასრული *arasruli* ‘ezoso’, სასიამოვნო *sasiamovno* ‘atsegin’ / არასასიამოვნო *arasasiamovno* ‘ez-atsegin’, ხალხური *xalxuri* ‘herritar’ / არახალხური *araxalxuri* ‘anti-herritar’, ოფიციალური *opicialuri* ‘ofizial (adj.)’ / არაოფიციალური *araopicialuri* ‘ezofizial’; ing. *no-man’s land*, *no-good*, *non-arrival*, *non-cooperation*, *non-fiction*, *non-smoker*, *non-stop*, *non-union*, *non-violence*,... gurea ere bide beretik ibilia da aspaldidanik bide hori: *ezgauza*, *ezaina*, *ezordu*, *ezteus*, *ezgarai*... eta horrek etorkizunean ere era horretako hitz berriak nondik itzul genitzakeen erakusten digu.

¹³ Homero, *Odisea*, Aita Santi Onaindiaren itzulpena, Euskerazaintza, Bilbo, 1985.126-127. orr.

¹⁴ Haur eta hordiangandik beti egia jasotzen delakoagatik, galdera bera egin nion Ibairi, neure seme txikiari, zazpi urte zituenean: “Inor-ez izeneko gizon batek txakur bat hiltzen badu, nork hil du txakurra?”. Erantzun garbia eman zidan: “Inor-ezek”, erdaldun haurrek *Juan y Pinchamé*-ren istorioa entzutean beti *Pinchamé* ihardesten duten berezkotasun berberaz.

Hortaz, aita Onaindiak, euskaldun fina izan arren eta Azkuek W. Rollok Markinan bilduriko laminen ipuinari eginiko ohar zuhurra gora behera (ikus 8. oharra), kasu honetan behintzat ez zuen asmatu, eta zinez ezin dezakegu esan itzulpen egokia egin zuenik.

Liburu hori euskaraz irakurri nuenean, nerau ere ofiziokoa izaki, pixka bat arazoaz pentsatzen aritu nintzen, eta ez zen zaila irtenbidea topatzea: aski zen galdera beste modu batera egitea : « Nor da hiltzen zaituena ? », adibidez, horrela, erantzuna, ergatiboz barik, absolutiboz izan zedin : « Inor-ez ».

Eta holaxe itzuli du, hain zuzen ere, Igerabidek bere itzulpen txukunean¹⁵:

Oihuak, inguruko mendi-gailurretako leizeetan bizi ziren ziklopeei deika hasi zen. Oihuak entzunda, leize ingurura hurbildu ziren haiek, eta zer zuen galdetu zioten kanpotik:

-Zer gertatzen zaik, Polifemo, gauean horrelako oihuak egin eta gu esnarazteko? Hilkorren batek artaldeak ostu al dizkik? Hi indarrez edo amarruz hiltzen saiatu al da norbait?

Eta erantzun zien Polifemok leize barrutik:

-Lagunok: Inor Ez zabilek ni hil nahian, amarruez baliaturik.

Honela erantzun zioten besteek:

-Bada, inor ez badabil hi hil nahian, Zeusen gaitzen bat izango duk, eta horren kontra ez zagok zer eginik. Eskaiok laguntza Poseidon aitari¹⁶.

Hori esanik joan egin ziren¹⁷.

¹⁵ *Ulises*, Homero, Juan Kruz Igerabidek itzulia, Erein, Donostia, 2000, 58. orr.

¹⁶ Euskal ipuinetako Tartalo eta artzainaren istorio klasikoak, ez eta Alarabiarenak ere, ez digu ordea, hitz-joko honen zantzorik ematen. Ongi jaso dago, ordea, William Rollok 1925 aldean Markinan bildu zuen laminen ipuin batean, jada 8 oharrean jada aipatu den bezala. Hor lamina batek Josepa deritzon andre bati izena galdetzean, berorrek *ni-neu* erantzuten dio, eta halako batean andreak laminari burruntzia sartzen dionean, haren oihu-etara “datos gero Oxillaiñaldeko ta Axmendi aldeko lamiñe gustiek lamiñe aren ayenetare ta uluetare (sic) ta itanduten deutse danak miñ arrtute euen lamiñiai ia nok eitson eta erantsu eban betik “nineuk”. Bestiek “orrkompon euk eindon euk eukin”. Oraingo honetan gaizki ulertua honegatik gertatzen da, kontsonante aurreko jarreran *nik-neuk*-en lehen [k] hori euskara mintzatuan eskuarki ahoskatzen ez delako, [ninewk] esanik.


¹⁷ Era honetako hitz-jokoen bidean, bada gure artean literatur tradizio luze bat, gutxienez Lazarraga arabarraren garaian ere praktikatua, bertsoak erdi euskaraz eta erdi gaztelaniaz taiutzeko, *sagarra-manzana, ikatza-carbón...* edo *Cuando vamos a Ochandiano andra Mari egunean...* ezagunetan garbi ageria. Horien bidetik, eta, batera, esaten zitzaionarekin entzulea nahasteko asmo berberarekin, bazen txantxa xeibre bat duela berrogei bat urte Burgosen soldadutza egitera beharturik geunden euskaldun soldaduen artean, erdaldunei

Bistan denez, ondo itzultzeko, hizkuntza ongi jakiteaz gainera, beste zer-bait ere behar da: hitzekin jokatzeko eta jostatzen jakitea, irudimen azkarra eta eskarmentua ere, hots, idazle eta sortzaile sena.

NEMO-REN SEGIDA LITERATURAN

Edonola ere, Ulisesek bere buruari jarritako gaitzizen klasikoak, grezierazko Ουτις horrek, segida luzea izan du historian zehar batez ere bere latinezko itzulpena den *Nemo*-ren bitartez, eta, ondorengoak ikusita, benetan esan daiteke izugarritzko arrakasta ukan duela harrezkeroko literatur erabile-
ran.

Bi mila baino gehiago urtetan erdi ahantzirik egon ondoren, bat-batean, XIX. mendean, non eta Frantzia, Jules Verne-ri esker, berriz ere plazaratu zen, bere *Hogei mila lekoa itsaspeko bidaian* izeneko eleberrri famatuan zientzia fikzioko idazle horrek *Nautilus* itsaspekotziko kapitaina, misterio kutsua emateko edo, *Nemo* izenez bataiatu zuenean. Eta ez zen hori, gainera, Polifemoren latin-izena berreskuratu zuen autore bakarra.



maiz egiten geniena: eta zen haiei “Has visto a Ikusi dok?” galdetzea, gizagaixoek *Ikusidok* hori nor arraio ote zen ulertu gabe gelditurik. Kirikiñok ere bere *Bigarren abarrak* kontu-bilduman antzeko pasadizoa dakar, Gaztela-mutilena, Burgosko herri bateko alkatearen txakurra harriaz jo zuen euskaldun batek hari bere izen-deiturak esaterakoan emandako erantzueraz burlatiaz: *Asensio Txakurra Jodabena*.

Izen berberaz baliatu zen, adibidez, Winsor Mc Cay estatubatuar marrazkilaria ere, New York Herald egunkariaren iganderoko gehigarrian 1905eko urriaren 15ean lehen aldiz bere pertsonaia jendartearen aurkeztu zue-
nean, hots, *Little Nemo* haur ameslaria, komikigintzaren historian, hor ager-
turiko kontzepzio berritzaileengatik jadanik klasiko bihurtua. Azken urte-
otan, berriz, Walt Disney zinema etxeak ere iturri berera jo du, pailazo arrain
zuri-gorri baten abenturak kontatzen dituen haur-film bati *Finding Nemo*
'Nemoren bila' izenburua jarri dionean, gaztelaniaz *Buscando a Nemo* gisa
itzulia.

Ουτις *Nemo* klasikoen *Nadie* erdal ordainak ere, mintzaira arrunteko *un
don Nadie* ezagunaren bidetik, bere errepika izan zuen Frank Capra-ren *Meet
John Doe* deritzon filmaren gaztelaniazko deituran ere, Gary Cooper eta
Barbara Stanwick protagonista zituen istorioari *Juan Nadie* bezalako izen
celebrea jarritz.

PERTSONA-IZENEN ITZULPENAZ

Gaurko itzultzaileok argi daukagu hitz guztiak ezin daitezkeela itzul,
denotazioaren mesedetan exotismoaren konnotazioa galdu nahi ez bada
behintzat. Horrexegatik, badira itzulgarri ez diren berba eta esaerak, pertso-
naien izen-deiturak, atzerriko leku eta hirien deiturak, bertako jantzi, ohitura
edo jan-edanak adibidez.

Iraganeko tradizio luzearen poderioz joera honetatik salbuetsirik daude
aita santuen eta errege-erreginen izenak, bai eta behialako saildu, autore eta
pertsonaienak ere (gazt. *San Tomás Moro* edo *Julio Verne*, eusk. *On Kixote...*)
horietako batzuetan sarritan gurean gehiegikeriak gertatu arren¹⁸. Inoiz
geografi izen zaharra antzinako errealitatea adierazteko bereizi da (Antzinako

¹⁸ Euskaraz antzinako pertsonaia gehienek lekukotasun idatzia oso urria da, eta ia beti
inguruko erdaretatik kalkatua. Horregatik, gure artean egiazko tradizioirik gabeak izanik, ez
da garbi ikusten, zer dela eta, mimetismo anakroniko hutsez ez bada, onartu behar ditugun
pertsonaia historikoaren benetako izena maiz erabat itxuraldatzen duten erdal bertsi-
o zaharkitu horiek; *Ciro*, *Mahoma*, *Confucio* edo *Tamerlan*, adibidez, egiazki *Kuraš*,
Kung(fu)zi, *Muhammad* eta *Timur Lenk* deitzen zirenak adierazteko. Are kritikagarriagoa
da, ene ustez, gure alfabeto berean idazten zuten *Ciceron* edo *Quintiliano* modukoak eus-
karaz *Zizeron* eta *Kintiliano* letraldatu nahi izatea, grafia "egokitu" horrek, gainera, izenok
[siseron] eta [kintiliano] irakurtzera behartzen baikaitu, beste grafiak haien egiazko ebake-
rak ere, [kikeron] eta [kwintiliano], egiten uzten digun arren, hala nahi izanez gero.

Persia baina oraingo Iran, Behialako Sibiliala eta oraingo Sevilla, Pekin zaharra eta Beijin modernoa, “Zeilango tea” baina egungo Sri Lanka, Bangla Desh baina Bengalako Golkoa ...

Edonola ere, egungo irizpideekin inori ez litzaioke bururatuko Bill Clinton, George Bush edo Vladimir Putin presidenteei, Guillermo Clinton, Jorge Bush edota Vladimiro Putin deitzea, baina ez dezagun ahantz, oraintsura arte, oso ohikoak izaten zirela Carlos Marx, Federico Engels edota Adolfo Hitler bezalakoak, XV-XVI. mendeetan Gutenberg eta Maastricht eskuarki Gutemberga eta Matrique itzuli ohi ziren bezala¹⁹. Horrexegatik, orain dela berrogeita hamar urte Estatu Batuetan giroturiko eta anglosaxoi aktoreekin jokaturako film horri *Juan Nadie* bezain izen karpetovetonikoa ipintzea ohikoa zen, horrek irrealtasun giro nabarmena ematen zion arren. Gaur, zalantzarik gabe, gaztelaniaz bestelako izenez aurkeztuko zatekeen pantailetan.

Haurrentzako film eta komikietako pertsonaiak ere ez ziren salbatzen, inoiz espainiar nazionalismo harropuz hutsez, baina beste batzuetan –eta hau ulergarria ere bada–, ipar amerikarren eragin kolonialistatik ihes egiteko asmoz ere bai, pertsonaia horiek haur erdaldun elebakarren mailara egokitu nahia ahanzteke. Horrela, *Mickey Mouse* sasoi batean *el ratón Miguelito* gisa pantailarazten zen²⁰, eta *Silvester and Tweety* katu-txorriak *Piolin y Silvestre* izenez ezagutzen dituzte Espainiako haur guztiek.

Horago agertuenez, jatorrizko testuetan hitz-jokoak agertzen direnean, itzultzaileak ahalegin bereziak egin behar izaten ditu helburuzko mintzairan ere antzeko bihurrikeria lortzeko, nahiz eta, ondorio berdin-berdinak lortzea ez den erraza²¹. Euskal itzulpen batzuetan, ordea, ez da beti zuzen jokatu. Haur eta gazteen mundutik irten gabe, ez dute irudimen handiegirik erakutsi gure arteko itzultzaileek nazioarteko komiki ospetsu biko pertsonaiak euskaratzean. Tintin eta Asterixez ari naiz.

¹⁹ Eta ez, soilki, duela lauhun urte. *El Correo*-ko kazetari espainol nazionalista sutsu batek, Albako Dukeak eta Gran Capitán famatuak XVI. mendean Herbehereetan egindako balentria odoltsuak oraino gogoan nonbait, *Matrique* gora eta *Matrique* behera zera-bilkigun oraindik duela hogei bat urte Nederlandako hiri hori aipatzeko, Europar Batasunerako hitzarmenak han sinatzen zirelako iruzkinak egitean.

²⁰ Mexikon eta Espainiaren kolonia izandako beste herrietan batez ere.

²¹ Inoiz baina, itzulpenek jatorrizkoaren kalko zehatza eskaintzen digutela pentsa daiteke. Horrela, 1938an John G. Blystone-k zuzendaritzapean behialako zinema mutuko izarrak izan ziren Stan Laurel eta Oliver Hardy (Lodia eta Argala) aktoreen film baten erdal izenburua ikustean, hots, *Quesos y besos*, ia zirtoa den deitura horren iturburuan edozeinek pentsa lezake ingelesezko *Cheeses and kisses* esaldi hoskidea aurki genezakeela, baina ez, itxura gorabehera, jatorrizkoa *Swiss Miss* izan zen.



Bietatik zaharrena Hergé-ren obra dugu, gure artean duela berrogeita hamar urte inguru erdaraz agertu zena²². Komiki jada klasiko horietako batzuk Euskal Herrian 1970eko hamarkadan argitaratzen hasi ziren Anton Quadra jaun euskaltzaleak belgikar marrazkilari horrekin egindako gestioei esker. Tintin-en abenturetako pertsonaia nagusiak Tintin –protagonista–, Haddock kapitaina, Tornasol zientzialaria (frantsesez Tournesol), Castafiore andre opera-kantaria eta Milú (Milou) txakurra, besteak beste, mundu guztiko itzulpenetan izen berberaz eskaintzen dira. Horiez gainera, badira, ordea, pertsonaia xeble bi, detektibe biki arlote eta ganorabakoak, frantsesezko originalean Dupond eta Dupont deituak, hots, grafia ezberdina gora behera, deitura berdintsua dutenak. Horien deituren umore kutsua mantentzeko, espainierara, oso zuhurki, *Hernández* eta *Fernández* gisa itzuli zituzten, eta gaur egun horrelaxe aipatzen dituzte erdaldun guztiek, horiek beren jatorrizko deiturak balira bezala. Euskaraz agertzean, ordea, itzultzaileak, abertzalea nonbait, gaztelau-deitura horien espainol kutsu nabariegia ikusita, jatorrizko frantses iturrietara abiatzea nahiago izan zuen, gure Iparraldeak, hizkuntzari dagokionean, Frantziapen are kolonialismo-zama pisutsuagoa pairatzen duela ahantzirik. Hortaz, *Dupond* eta *Dupont* ditugu euskaraz ere.

²² Gogoan dut, Tintin-en abenturak hamaika-hamabi urte nituenean heldu zirela ene eskura lehen aldiz. Bilboko eskolapioen ikastetxean hilero banatzen ziguten aldizkari batean agertzen ziren, zatika, ale bakoitzean bina plama betez.

Lehenbiziko aldian itzulpen hori ikustean, –eta ez daukat neure burua munduko argieneren artean²³– berehala etorri zitzaidan burura askoz egokiagoa zatekeela pertsonaia horiek euskaraz *Etxeberria* eta *Etxebarria* deitura eza-guneren bidez itzuli izan balira²⁴, Bilbon behintzat garai bateko erdal *estar de Rodríguez* hura, ‘udan familia oporretan baserri aldera-edo bidalita, hirian lanean gelditzen ziren senarrak’ aipatzeko, antzeko arrazoiengatik, bertoko abertzale erdaldunek *estar de Goikoetxea* itzuli zuten bezala. Tamala, benetan, hain konponbide erraz eta bistakoa izanik, komiki klasiko bateko pertsonaia horiek, euskaldun gehienoi deus esaten ez diguten frantses deitura horiekin hain axolagabeki uztea.

Gauza bera esan daiteke Asterix-en itzulpenez ere. Gabriel Arestik egin-dako moldaera benetan txirene eta barregarriak alde batera utzita²⁵, hizkuntza askotara itzuli den pertsonaia baten izenez gauza bera gertatu da. Galiar garaiezin horien herritxoan bada gizon zahar bat, andre gazte panpoxarekin ezkondua, frantsesez *Âgédécanonix* deitua. Hori espainol edizio batzuetan *Vejestorix*, eta beste batzuetan *Edadepiedrix* bataiatu dute, horrela frantsesezko hitzak, Galian duen konnotazio irrigarria gorabehera, Hispania aldean inolako iradokizunik ez daukala kontuan izanda, antzeko eragina sortzeko. Euskaraz baina, frantsesez bezalaxe utzi digute geure itzultzaileek, *Agurezaharrix* gisako zer bait moldatzea, esaterako, batere zaila ez zatekeen arren.

Baina itzulpen kaxkarrak ez dira, soilki, gureak izaten. Espainolez ere laprastada ez txikiak egiten dakite. Roy William Neill zuzendariaren gida-

²³ Are gutxiago, gure akademian bertan bere burua askoz ere goragotzat daukanak euskaltzainen artean lehen eta bigarren mailakoen banaketa ezin gaindituzkoa ezarri zuenetik aurrera. Nik garbi aitortzen dut oso ongi sentitzen naizela neure gristasunaren *aurea mediocritas*-ean, toki guztietatik pertsona argitsuez asean dugun zorioneko herri ilun honetan.

²⁴ Edota, Agirre / Agerre, Arrieta / Harrieta, Aranburu / Haranburu, Aresti / Arizti, Olabarria / Olaberria bezalakoak; eta, hala nahi izanez gero, buruko neke handirik gabe, Goikoetxea / Bekoetxea, Jauregizar / Jauregiberri, Olazar / Olabarri modukoetara ere jo zitekeen.

²⁵ Arestik berak aitorturik, badakit berak, gutxienez, Asterix-en pare bat abentura euskaratu zituela. Bietan zirtoak, erantzuera errimatuak, hitz-jokoak etab. ugariak dira, testuei umore maila bikaina emanda. Bilbotarrak, ordea, agian norbaitek bera bezalako poeta bat haurrentzako komiki batzuen itzultzaile gisa aritzeari mailaz jaistea iritz ziezaio-keelako edo, editore adiskidearen eskariari uko egin ez arren, ez zuen nahi ukan bere izena euskaratzaile gisa agertzea. Gauza bera egin zuen Txano Gorritxoren ipuina disko batean grabatzeko, Xabier Gereñok bere boza eskatu zionean... otsoarena egiteko. Bere ahots lodi sakonaz, izugarri ongi ikaritzen omen ziren umeak. Gereñok berak zioskunez, bigarren argitaraldiak, Aresti ez zen beste baten boz bigunagoaz eginak, ez zuen horrenbesteko arrakastarik izan, otsoaren hitzak entzutean haurrek ikara sentitu nahi zutelako, dirudienez.

ritzapean, 1946an film bat plazaratu zen, *Dressed to kill* izenekoa, Basil Rathbone, Nigel Bruce eta Patricia Morison artistekin. Horietatik erailea nor zen galdetuz gero, ingeles izenburuak behintzat ez liguke argi handirik emango, *dressed* partizipioak, euskaraz *jantzi* bezala, ez baitu generorik seinalatzen. Erdarara egindako itzulpenak, ordea, *Vestida para matar* dio, eta misterio eta polizi giroko kontakizun batean espero litekeenaren kontra, hasi baino lehen ere hiltzailea emakumea dela salatzen digu²⁶.

Maiseaturiko arazo horrek itzulpenetan informazio gehiegi ematearen arriskua erakusten du, eta hori, tokian tokiko hizkuntzaren ezaugarrien arabera, batzuetan noraezeko kontua izaten den arren, testuinguru batzuetan kezkarria da, eta ahal bezainbat, baztertzeko zerbait. Izan ere, latinetik hizkuntza gehienetan adjektiboak eta partizipioak izenekin genero eta numeroan nahitaez komunztaturik egoten dira, eta, hortaz, kategoria gramatikal horietako hitzak erabiltzen ditugunean, ezinbestekoa da horiek ere nabarmentzea.

Kontua da, ordea, kasu batzuetan ez dela komeni ezaugarri horiek bistan uztea, goiko adibidean agertu denez, edota, itzulpenez ari garelarik, jatorrizko testuak ematen ez duen informazioa premiarik gabe eskaini behar ez denean. Hor, itzultzaileak kontuz jokatu beharko luke, bere hizkuntzako baliabide aberatsagoak ahalik eta gutxien erabiliz, bestela, jatorrizko egileak ematen ez duen argibideak emango lituzke, bere burua berridazle ez baizik eta erabateko birsortzaile bilakaturik.

Berriki esandakoogatik, maiz pentsatu dut, arazo potoloa gertatzen zaigula euskaraz hika erabiltzean. Hobeki esan, gaurko gehiegizko adizkera

²⁶ Ingelesezko izenburua euskarara *Hiltzeko jantzia* itzuliz gero, nahasbide bikoitza izango genuke. Alde batetik *hil* aditz aktibo eta pasibotzat har daiteke eta, beraz berdin esan nahi luke ‘berez hiltzeko’ edo ‘norbaitek bera hiltzeko’. Bestalde, *jantzia* ere bi modutara interpreta liteke: liteke: a) ‘janzkera’ eta b) ‘zerbait jantzirik daramana’. Lehen zalantza argitzeko, argiagoak lirakeke *eraiteko* edo *erailtzeko* formak, eta bigarreneko *jantzirik* edo *jantzitakoa*. Ondoriozko *Eraiteko jantzirik* edo *Erailtzeko jantzitakoa*, ordea, oso artifizialak eta ohiko hizkuntzatik urrunak lirakeke. Horregatik, euskararen aldetik, askoz ere normalagoak lirakeke, askatasun pittin batez jokatuz, *Hiltzailearen jantzia*, *Erailearen jantzia* edota *Erailtzeko jantzirik* bezalakoak. Antzeko arazoa dakar aldean, *Born to kill* ingeles esatera militarista, gerra filmetan maiz soldaduen kaskoetan idatzia. Euskaraz *Hiltzeko jaiok* edo, inoiz gure telebistan agertu den *Hiltzeko eginak* hori bezala, ez dira oso zehatzak, *hil* aditzarekin goian aipaturiko aktibotasuna eta pasibotasuna nahaspilatzen direlako, horrek ingelesezko ‘*Born to die*’ ere esan nahi lezake eta. *Erailtzeko jaiok* argigarragoa litzateke.

alokutiboak darabiltzagunean²⁷. Begien bistan dago bigarren pertsona aditze-tan artez (*[hi]*, *hik* eta *hiri* kasuetan) aipatzen dugunean, euskaraz nahitaez horren generoa ere azpimarratu behar dugula, hebreera, arabiera eta beste semitar hizkuntzetan gertatzen den bezala. Baina gainerako adizkera guztietan ere solaskidearekiko erreferentzia etengabeki errepikatzea, ene ustez, kanpotar pertsonaien artean egindako elkarrizketak erabat distortsionatzen ditu, horien ahoan ez baitira sinesgarri gertatzen, eta, inoiz, argitzea komeni ere ez diren datuak itzurtzeko bide izan daiteke. Gehiegizko aberastasun horrek, gaurko euskaldun askori hika egiteko oztopo ia gaindiezina sortzen digunak, pixkanaka *ni naiz eta hi haiz* moduzko esaerak ere ontzat ematera eraman behar gintuzke, eta gainerako lorakeriak, gaur galdera, erlatibo eta perpaus menperatu eta txertatuetaraino ere hedatuak, murriztera, horien derrigortasuna kenduta²⁸, bere garaian Ambrosio Zatarain euskaltzain urgazleak maiz eskatzen zuenez.

²⁷ Badira, halere, XVI. mendeko testu batzuk, lehenago hitanoa, bigarren pertsonari aipamen zuzena egiten ez zioten adizkeretatik kanpo, ez zela nahitaez erabili behar erakusten digutenak: *Arçai polita, yc jaquingo doc eçe guec goaçela Dueroco riberara, çegaiti ençun dogu ezen...* Lazarraga, 1147 r-v, 1564. urtearen inguruan; *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea* RyS 208; *Yre auçoac eztequian gacha ona da 'daño que no te sabe tu vecino, bueno es'* RyS 431; *Catuac daroean oquelea gueyago da vereia çe ez eurea 'La tajada que lleva el gato más es suya que no tuya'* RyS 468, 1596.

²⁸ Nik ez diot oraingo hika txartzat hartu behar denik. Aise dakienak erabiltzea dauka. Proposatzen dudana besterik da: oraingo gehiegizko hika (*ez al zagon hor ala?*, *haiek etorri ditunalako, egon zuan gizona*, kasu) eskuarki onartzen dugun bezala, gutxienezko hika ere, hots, soilki *hi*, *hik*, *hiri* pertsonen dagokiena alegia (*ni naiz eta hi haiz*, *nik egin dut eta hik egin duk*, *esan diot eta esan dinat*, adibidez), ontzat eman eta, eskolan hasita, adizkera horiek mundu guztiari irakastea, *ni Peru naiz eta hiri txikle bat ematen di(n)at* gisako esaldiak zuzentzat joz, hiztuna hor *ni nauk / nauk* esatera behartu gabe. Horrek, azken buruan, hika irakaskuntzatik erabat baztertu eta ikasleen artean –gure tradizioaren kontra– soilki zuka (murriztua berau ere, derradan bidenabar) erabiltzera behartzen du eta, hikako tratamendu osoaren suntsipena ekarriz. *Sint ut sunt aut non sint* esanda oraingo hika sistema bere horretan mantentzearen aldekoak, azken buruan, konturatu nahi ez badute ere, horren hiltze-agiria sinatzen ari dira. Beste bidetik, gutxien-gutxienez, singularreko bigarren pertsonari zuzenik dagozkion formak bederen salbatuko genituzke, eta, horien oinarritik abiatutik, aldizka bederen, maiztasun handiko formen alokutiboak ere bai (*zegok*, *esan dinat*, *etorri dituk*, *joan zitunan...*). Ez dut uste, bestalde, hitanoa *earki gatxik* bezalako forma arrunt eta degradatuetan eskaintzeak horren erabilera bultzatzera asko lagunduko duenik. Eta horri hizkuntzaren gaineko “manipulazioa” leritzokeenak, pentsa lezake, halaber, ez ote den are manipulazio handiagoa orain egiten ari garena: euskaldun haurren artean beti *hi* izenordaina erabiltzea berezkoa eta naturala izanik, horren orde, erraztasunaren izenean irakaskuntz sistemaren derrigorrez ezarri dugun abusuzko zukako trataera bera.

EDOZERK EZ DU BETI EDOZER ESAN NAHI

Hizkuntzalaritzaren axioma horietako bat da, onomatopeien salbuespenaz, zeinu linguistikoaren bi osagaien artean, hots, adierazlearen eta adieraziaren artean, ez dagoela inolako loturarik. Horregatik, garai batean gurean astarloatarrek uste zutenaren kontra, mintzatzean esaten ditugun hotsek edo fonemek ez daukate berezko bertuterik era honetako edo hartako kontzeptuak adierazteko, hots, formak ez du zerikusirik esangurarekin, oinarriz behintzat. Horren arabera, edozein hitzek, berez, edozer esateko balio izan dezake, hiztunek hala nahi izanez gero behintzat. Hortik batzuek hitzen esangura libreki alda daitekeelako ondorioa atera dute, tradiziozko kontsiderazio historikoak, albo-hizkuntzekiko kideasuna etab. erabat alde batera utzirik.

Baina, geroxeago ikusiko dugunez, hizkuntzen barruan denboran zehar morfologia eta semantika aldetik gerta daitezkeen bilakaera harrigarriak ontzat emanik ere, halere, praktikak berak erakusten digunez, itzulpen zehatzak egin nahi direnean, edozein hitzek, hizkuntza arruntean izan lezakeen adiera gora behera, testuinguru berezi batzuetatik at ez du hori esateko balio izaten. Ikus ditzagun baina, era bateko eta besteko adibideak.

Eta mundu zabaleko hizkuntzetan horrela arbitrarioki sorturiko hitz ugari kausi daitezke, maiz konturatzeko edo arbitrarioki moldatuak. Hortik kontatzen den istorio xelebrea egia baldin bada behintzat, *kanguru* hitza horrela sortu omen zen: ingelesek Australiara heldu eta animalia bitxi horiek ikustean, bertako jende jatorrei haiek zertzuk ziren galdetu omen zieten, eta australiarrek *kangaru* erantzun omen zieten, beren hizkuntzan ‘ez dut ulertzen [zer diostazun]’ esan nahi omen zuena, baina ingelesek ihardespena entzutean hura martsupialio horien izen jatorra zela pentsatu eta horrela zabaldu zuten mundu guztian: *kangaroo*. Horixe bera gertatu omen zen Euskal Herrian Frantziako geografia institutu nazionalekoek Pirinioetako mendiak euskaldun artzainei galdezka ibili zirenean²⁹; haietako batek, hainbeste itaunez asperturik nonbait, *Nik debru dakita?* erantzun omen zien, eta, ondorioz, institutu horretako hurrengo mapa-argitaraldian *Mont Nicdebroudaquita* ponpoxo bat agertu zen..

Pyatigorsk-eko Unibertsitateko irakasle den Aleksey Yestxenko errusiar adiskideak duela zenbait urte kontatu zidanez, Errusiako karramarro gozoaren izenak, guztiok *txatka* hitzaz ezagutua, horrelakoxe jatorri barrugarria omen dauka. Dirudienez, errusiar flotak karramarro hori Ozeano Barean arrantzatzen zuen, Kamtxatkako fabrika batzuetan maneatu eta pote-

²⁹ Piarres Lafittek kontaturiko anekdota da hau.

tan sartzeko asmoz. Horrela deritzon penintsularen omenez, karramarro kontserbatu hori Kamtxatka izenaz bataiatu merkatu nahi omen zuten, baina soviatar plangintzaren ohiko gaizki ulertu bategatik –poteak fabrika bati eta etiketak urruneko beste moldiztegi bati, eredurik gabe, egiteko agindu zizkietelako–, kontua da marka-paperak luzeegi egin zirela eta, ondorioz, poteetan itsatsi ahal izateko, aurretik moztu behar izan zituztela. Horretarako, hasierako *Kam-* silaba desagertu zen, ondoko *txatka* geldituz, eta horrexek eman dio produktuari bere izen famatua. Gabon-jaiotan era horretako pote batean *Cangrejo Real de Kamchatka* irakurri dudanez, krustazeo horren zientzi izena *Paralithoides kamchaticus* da, nolabait, ene adiskide Aleksey-ren istorioa berretsiz.

Antzeko eraz moldatuak dira, esaldi osoa, laburtuz, frantsesezko *amiral* edota erdarazko *duende* ezagunak ere³⁰. Guztiotan, etorki xelebrea gora behera, gauza horiei hasieratik, inolako desadostasunik gabe eta esangura zehatzaz, hala deitu zaienez, ez da inolako eragozpenik izaten halaxe edonon ezagunak izan daitezen, aldameneko hizkuntzetan berba kideek besterik esan nahi badute ere: eusk. *arratoi* / esp., *ratón* ‘sagu’; eusk. *pantaloi* ‘kuleroa’ / esp. *pantalón* ‘praka’; eusk. *praka* ‘galtza’ / esp. *braga* ‘pantaloi, kuleroa’; eusk. *eskarmentu* ‘esperientzia’ / esp. *escarmiento* ‘zigorra’; fr. *pourtant* ‘halere’ / esp. *por tanto* ‘beraz’.

Halere, latinez lege eta bidegabekeriak esaten zen hura parafraseatuz, ene ustez, hemen ere *maxima veritas, maxima fallacia* gisako zerbait molda genezake, hizkuntzalaritzaren ustezko egia dudagabe batzuen definizioa azken muturreraino eramanez gero, maiz gertatzen den bezala.

Izan ere, gauza bat da giza hizkuntza guztiak, berez, giza kulturaren edozer arlo adierazteko gai izan daitezkeela aldarrikatzea, eta beste bat, zeharo ezberdina, abstrakzioaren plano gorenetik behearen gaineko maila apal eta lurtarrera jaitsita, mundu honetako mintzaira konkretuez ari garelarik, zenbatzeko “bat-bi-asko” sistema hirukoitza besterik ez duten Australiako indi-

³⁰ Frantsesezko *amiral* arabierazko **أمير البحر** *emir al-baḥr*-etik heldua da, hots, ‘itsasoko emir edo printzea’, arabiera jakin gabe, azken osagaia kendurik. Hortik, gaztelaniazko *almirante* sortu zen, hasierako *al-* hori arabierazko beste hitzen analogiaz (*almohada, alkalde, albóndiga, almáciga*...) eta *-ante* bukaera ofizio edo kargua adierazten duten latinetikoko beste hitz batzuen kutsaduraz (*ayudante, comandante, estudiante, tumante*...) agerturik. *Duende*, aldiz, *dueñ(o) de casa*-ren laburdura da, iratxoak, behin etxe batera sartuz gero, hartaz jabetzen zirelako sineskeran. Horren kalko zuzena da, adibidez, euskara zaharreko *etxajauna*, 1596ko *Refranes y Sentencias* atsoitiz bilduman agertzen zaiguna: *Etxajaunen saria ez da hain koikari zein dirudi*: la dádiva del duende no es tan sobradísima como parece’ EyS 499.

gena batzuen gaur egungo hizkuntzan matematika, aljebra edo kalkulu infinitesimala eragozpenik gabe gara daitezkeela esatea. Edota Badajozko ahuntzain baten herriko erdara arruntaren mugetatik irten gabe, haren berezko ondare lexikal hutsarekin matematika, filosofia, biologia edo zuzenbidearen ñabardura guztiak xeheki adieraz daitezkeela sinetsarazi nahi izatea.

Errealitatea ez da hain sinplea. Neke handirik gabe ontzat eman daiteke teknologia eta ofizialtasunaren aurreko kultura mailan dauden jendeen hizkuntzak ere, orain duten egoera apal horretatik irtenda, aurrera egin eta munduko jende garatuagoen mintzairen mailara “hel daitezkeela”. Halere, horretarako, jakina, besteek mende askotan zehar asmatu-rikiko eta prestatu-rikiko lexikoa eta esapideak sortu behar dituzte, azken orduan bada ere, egokitze lan ikaragarria eginez.

Baina uste zeharo ezberdina da, aurrelan neketsu hori egin gabe, mintzairak oro, berez, giza hizkuntzak direlako arrazoi soilarengatik, guztiak maila berekoak direla eta egoera berean daudela pentsatzea. Izan ere, askotxo gara, irakaskuntzan dihardugunon artean behintzat, ez soilki yonkien, baizik eta gaurko batxiler batzuen hizkuntza-egoera (berau euskara zein erdarak izan) europar unibertsitate mailako kontzeptuak adierazteko ez dela gai sinatuko genukeenok.

Eta, berriro diot, ideien goi-estratosfera garbitik eginen behe-mundu kutsatu honetara makurtuz, hortik argitaratzen diren gauza batzuk irakurrita, inoiz badirudi Peru Abarka, orain kaletarroi “bidea *kusten* segitzen duen Isabel” gisa mozorroturik, berriz ere biztu zaigula, eta euskara jakitea aski dela, –txikitandiko euskara jator bedekatu hori, amaren bularretik dohainik edoskirikoa, esan nahi dut, eta ez, otoi! bizitza osoan geure hizkuntza ikasten eta lantzen gabiltzan euskaldun berri legenardunok omen darabilgun euskara lotsagarria!– diren, ez diren eta diratekeen gauza guztiak ere ongi, dotore, zehatz eta zoragarriro adierazten asmatzeko.

Batzuek sortzez barru-barruan omen daukaten hizkuntzaren senetik etorririko herri-arnas jator horri baina, eskarmentuz, gero eta susmagarriago deritzot, euskal analfabetismoaren apologista gehienek, berezko euskara zoragarri horri, antza, ikasteak eta irakurtzeak kalte besterik ez diola egiten uste dutela ikusita. Bestela esan, beti aitortuko dut euskara-kontuan sarritan gauza asko ikas daitezkeela sekula santan euskaraz ezer irakurri ez dutenengandik ere, baina, aldi berean, duintasun-kontuengatik, ez nago inola ere prest pertsona horiek bestean maisu eta euskaldun eredugarri gisa presenta dakizkigun³¹.

³¹ Izan ere, euskal liburu bat inoiz esku artean izatea hain erraz barkatzen zaien euskaldun horiek, ordea, praktikan irakurtzen duten guztia erdarazkoa eta, ondorioz, daukaten kultura landu guztia ere halakoxea da.

Egia da, oinarrizko kultura, jakitea eta munduari buruzko informazioa, maila bateraino bederen, etxeko giroan bereganatzen dela, eta, kasurik onean, norbere hizkuntza trebeki erabiltzeko gaitasuna ere bai. Hortik gainerakoak, ordea, hizkuntzaren goi ahalmen eta baliabideak barne, kanpoko ikasketa, irakurtze eta eskola bidez datozkigu. Biderkatzeko taula, Pitagorasen teorema, azido klorhidrikoaren formula, Lituaniaren kokaera geografikoa, Amazoniako flora eta faunaren berezitasunak, greziar tenpluen arkitektura-ezaugarriak, Indiako mitologia, Beethovenen sinfoniak, Shakespeare-en obrak, giza eskeletoaren hezurren izenak edota Jupiterren sateliteen izenak ez ditu eskuarki jendeak bere etxean ikasten, eta are gutxiago kultura apaleko familietan. Normala da, beraz, horien gorabeherak zehaztasunez azaltzeko orduan ere, etxeko terminologia jatorra bera ere anitz arlotan labur, urri eta eskas gelditzea.

Horregatik, nazioarteko kontzeptu ongi homologatuak etxe-etxeko terminologiaz eta “betiko euskara jatorrean” ematen saiatzea puntu bateraino txalogarria bada ere, jokabide horrek, azken muturreraino praktikatu nahi denean, absurdoetara garamazke. Izan ere, Kepa Altonaga irakasleak pisuzko arrazoiez behin baino gehiagotan salatu duenez, nazioarteko kultur eta zientzi kondizionamenduak tartean direnean, ez dago edozein hitz arrunt erabiltzerik zernahi esateko, zehaztasunik ezagatik horretarako balio ez dutelako, hain zuzen.

Behin, duela zenbait urte, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian emandako hitzaldi bikain batean, Jose Ignazio Ansorena maisuak azaldu zigun oraingo txistuak ez direla lehengoak bezalakoak. Antzinakoek bestelako musika-eskala zeukaten, eta European oraingo pentagramak arautu zirenean, gure txistu tradizionalak berak ere haietara egokitu beharra izan zuten, gutxi gorabehera Iztuetaren garaian, eta ordutik aurrera lehenagoko euskal musika zaharra molde berrietara egokituz joan zen. Era berean, euskarazko hitz batzuek ere denboran zehar homologatu beharra izan dute, behialako astegunen eta hilabeteen izenetatik hasita, gaurko euskaldunon adierazteko premiak asetzeko. Horretarako, gainerako hizkuntza guztietan gertatu denez, inguruko mintzaireren presio eta eraginak jasan behar izan dituzte, gure gaurko *arlo, erkidego, errepede, euritako, lastaira, luma, posta, orri, ostatu, zeinu, zigilu* edo *zubi*, ezagunak lekuko.

Etxeko giro soilean erabiltzen diren hitz askok, noski, homologatu gabe diraute, baina horiek eskuarki hortxe gelditzen dira, zehaztasunik gabeko multzo handian, *tramankulu, traste, ongi-ez, piztia, patari, zomorro, mamutx* edo *eruge* berbak adibidez, horien esangura lainotsuek³² ezin baitute sarrerarik

³² Gaztelaniazko *cacharro, cachivache, bicho* edo *sabandija* lainotsu eta homologatugabeen antzera.

izan teknologia edota biologia arloan. Hortxe ditugu, esaterako, zorioneko *eskarmentua*, *hotz-beroa* edota *luze-laburrak*, esaera jakin batzuetatik landa ezin irtenez. Horien ordez, egiazko zientzia egin nahi dugunean *esperientzia*, *temperatura* edo *distantzia* erabiltzera beharturik gaude, *esperientzien liburua*-ren ordez, *eskarmentuen liburua* esatea, kasu, irrigarri gertatuko litzateke eta.

Gure aldameneko Kantabrian –eta ez dezagun ahanz bertakoen nekazaritza-giroa gure baserritar gehienena bezain “jatorra” denik– oso ohikoa izaten da, erdara estandarrean *cosecha* ‘uzta’ deitzen dena adierazteko, *fruto* esatea (“*este huerto ha dado ya su segundo fruto*”) baina, testuinguru berezi horretatik at, inongo erdaldunek ez luke *cosecha*-ren ordez *fruto* erabiliko, “**vino del fruto de 1998*”, “**el granizo ha malogrado el fruto de fruta de este año*” edo “**el fruto de trigo ha sido bueno*” moduko xelebrequeriak esateko³³. Hortxe dugu, are etsenplu argiagoa ipintzeko, erdara arrunteko *santo* hitza bera ere, behialako eliz liburuetatik aterea, ‘ilustrazio’ adieran, (“*no leo, solamente estoy mirando los santos*”); baina inori bururatuko al litzaioke, liburu baten apaintzailea aipatzerakoan, kortesien orrian, *ilustraciones* edo *dibujos*-en ordez, “**Santos: Fernando Gartzia*” idaztea?

Gauza bera gerta lekiguke *txalupa* hitzarekin ere, bere jatorrizko euskal lexikoa erabat gal-ahantzia duten itsas herri jator batzuetakoei kasu eginez gero behintzat. Izan ere, gaur egun euskaldun batzuek berba horrekin edozein itsasontzi adierazten dute, berori Queen Elisabeth gurutzontzia, Titanic transatlantikoa, petroliontzi erraldoia, laket-yatea, lanerako gabarra zein txipiroiak arrantzatzeko ontzitxo arraunduna izan. Baina, euskara gehiago eta hobeto dakienarentzat bederen, horrela jokatzea ez da zilegi.

Bide berean abiatuz, jar dezagun euskal adibide bat, neronek hautatu ez dudana. Gauza jakina da gure iparraldeko klasiko guztiek *erresuma* hitza ‘erreinu’ esanguran erabili dutela, euskaldunontzat arrazoi historiko eta sentimentalengatik ezin ahantzizkoa den *Nafarroako erresuma* barne, eta berba hori hegoaldean hedatu den neurrian, jatorrizko esangura historiko eta klasiko horrekin zabaldu da. Alta, garai bateko estatu gehienak monarkiak izaten zirelako, azken aldion iparraldean *erresuma* hitza ‘estatu’ ere esateko erabiltzen omen da. Ondorioz, ipar idazle batzuen erabilera berria eredu harturik, orain norbaitek hitz hori bere jatorrizko esangura propio eta berezian barik, ‘herrialde’, ‘estatu’, ‘herri’ zein ‘nazio’ kontzeptuak lainotsuki adierazteko proposatu nahi digu, eta hori ez da, ene ustez, oso ideia egokia, zehaztasuna behar ez duten testuinguruetan izan ezik.

³³ Eta batzuetan, erredundantziak saihestearren, ohiko hitza ez bezalako sinonimoa aukeratzen da esaldi finkatuak sortzeko: *aceite de oliva* adibidez, posible bai baina belarri-rako errepikakorra litzatekeen **aceite de aceituna*-ren ordez.

Izan ere, haurrentzako ipuinetan, ez dagoke gaizki *herrialde*-ren sinonimo gisa, era honetako zerbait idaztea: “*Behin batean, erresuma urrun batean, neska bat bizi zen...*”. Halaber, aipatu nahi den Estatuia, aldi berean, errege batek gobernatua denean, hitz hori inolako arazorik gabe erabil daiteke: “Espainiako errege-erreginek Thaiandiako erresuma bisitatu dutela”, esaterako. Halere, “Fidel Castrok Chavez, Venezuelako erresumako presidentea, agurtu duela” irakurriz gero, hor, nahitaez, *contradictio in terminis* bat begibelarrietaratu litzaziguke, Venezuela *estatu* eta *errepublika* bai, baina sekula santan *erresuma* izan ez delako, historia ikasi duen edozeinek ondotox dakienez. Horregatik, nire belarrietarako, behintzat, eta, ene ustez, gure literatur tradizio zaharra ezagutzen duen edozein euskaldunentzat ere bai, *errepublika* bati *erresuma* deitzea erabat desegokia da. Argitalpen serio batean, erlijio guztietarako balio duten *templo*, *sacerdote*, *monasterio* edo *monje* hitz orokorren orde, kristau konnotazio nabarmeneko berbak erabiliz, *iglesia [maya]*, *curas [de Osiris]*, *convento [tibetano]* edo *fraile [budista]* bezalakoak esatea gutxieneko kultura duen erdaldun batek, erabat gaitzetsiko lukeen bezala.

Esan dudan bezala, iparraldeko zenbait idazleren eredia aipatu da erabilera bitxi horren alde. Horri buruz bi gauza aipatu beharra legoke. Alde batetik, tribalismo maila gaitzetsua, nazio bera osatzeko kontzientzia jada erdietsia duten herri guztietan gertatzen den bezala, gogoratu behar da Iparraldeko euskara ez dela, soilki, bertakoen jabetza pribatu eta hertsia, euskaldun guztion ondare amankomun eta zabala baizik, Hegoaldeko euskara ere Iparraldeko euskaldunena ere baden –edo izan beharko lukeen– bezalaxe³⁴. Arrazoi berberetatik, Frantziar *Poitiers* toponimoa ez dagokie, soilki, hura bustiduraz [pwaʝjé] ebakitzen duten frantsesei, *Huelva* izena, berorri [gweRba] esaten dioten espainolena, eta ez beste inorena, ez den bezalaxe.

Bestetik, gauza nabaria da iparraldeko idazle batzuek, gure literaturaren iragana ahantzi eta euskal tradizio idatzia baztertzeko joera nabaria izaten dutela, presenteko euskara dialektalizatuagoaren fabore; ondorioz, beren aurretikoen tradizionalki *euskara*, *euskalduna*, *or(h)oitu*, *Nafarroa Beherea*, *Meharin*, *Sasasola* eta *Paris* deitu eta idatziez ahantzirik, horiek *eskuara*,

³⁴ Duela urte pare bat ezkerreko alderdi ezagun batek Iparraldean mitin sonatu ba egin zuen “*Nazio bat gira*” zioen pankartapean. Nekez hauta zitekeen testu okerragorik. Izan ere, nazioek, eskuarki, hizkuntza nazionala daukate eta beren liderrek horixe erabiltzen dute nazio horren izaera eta batasuna aldarrikatzeko. Hortaz, euskal hizkuntza nazional batuan “*nazio bat gara*” esan beharrean, dialektoz mintzo denak argi erakusten du ez daukala bere herria egiazko naziotzat. Bide batez, Iparraldeko euskaraz egitekotan, “*nazione bat gira*” idatzi beharko zuketean, hibrido bitxi horren lekuan.

eskualduna, orroitu, Base-Nabarre, Mehain, Zarazola eta *Parise*³⁵ esan eta idazten dituzte, hegoaldekook eskuarki tradizio historikoari diogun errespetuari horrenbeste jaramonik egiteke, onomastikan eta toponimian maiz irizpide kontrajarriak agertuz³⁶. Horrek, noski, berezkitasun eta bizitasun kutsu estimagarria ematen dio bertako prosari –elkarrizketetan, adibidez, ondo kontuan izatekoa–, baina, aldi berean, aspaldian Villasantek deitoratu zuenez, urruntze horrek hegoaldekoekiko lotura hausten du, eta hemengo jendeari hango testuak ulertzea nabarmenki zailtzen³⁷.

³⁵ Joanes Leizarragak, adibidez, 1571an bera Beraskoizko semea zela zioskun. Orain dela bi mila urte *Barcino*, *Burdigala*, *Massilia* eta *Neapolis* deitzen ziren hiri haiek, denboraren poderioz gaur *Bartzelona*, *Bordele*, *Marseilla* eta *Napoli* bilakatu zaizkigula onarturik ere, egia aitortuz, nik ez dazagut mundu zabalean, laurehun urte lehenagoko idazle batek bere herria aipatzeko zerabilen izena, gaur egun horrenbeste aldarazi duen zibilizazio-hizkuntzarik, gurean bezala, XVI. mendearen azkenaldiko *Beraskoitz* hura XX. mendean era idatzian *Beskoitze* bilakatzeko punturaino. Eta forma bereko izenez ari naiz, ez *Sankt Peterburg* / *Petrograd* / *Leningrad* edo *Leopoldville* / *Leopoldstad* / *Kinshasa*, *Euskal Herria* / *Euzkadi* bezalako itzulpen eta aldaketez. Azken buruan, oroipen historikoaren iraute kontua dago hor. Bizkaian, adibidez, Elantxobeko jendeak badaki bere herriaren izen formal eta serioa zein den, idazterakoan erabiltzekoa, berek beren eguneroko hizkera dialektalean eskuarki horri *Elentxu* deitu arren. Arrazoi berberetatik hobetsi dira Gipuzkoan eta Nafarroan *Hondarribia* eta *Olatzagutia* bezalako toponimo osoak, herri-ebakerako *Hondarbi* eta *Olazti* arrunt-laburtuen lekuan.

³⁶ Iparraldeko euskaldun batzuen jokabide “sinkroniko” hori ulertzeko, nik uste, ezin ahantzizkoa da oraindik han pairatzen duten ofizialtasunik eza. Horren eraginez, Iparraldean gure hizkuntza frantses hutsezko mundu ofizialek kanpoan dago erabat, eta, batez ere, etxekoen eta ezagunen arteko ahozko komunikaziorako tresna besterik ez da. Aditzekoa da, hortaz, oraindik iparraldeko anitzentzat euskara, soil-soilki, supaztertxokoko eta lagun eta ezagunen artean erabiltzeko zerbait izatea, eguneroko, herriko eta maila apaleko gaiez mintzatzekoa, goragoko kultura gaiak, eskola, administrazio eta hedabideetako ereduari jarraikiz, frantsesetik ukitzekoak izanik. Normala da, beraz, hegoaldekoon artean gutxienez aspaldiko hogeita sei urteotako ofizialtasunari esker, gero eta sentitzenago dugun normalizazio eta homologazio premia bera haietako askok oraindik ez ikustea. Horregatik ez zait pisuzkoa iruditzen oraino egoera eznormal hori pairatzen dutenen erabilera ez-homologatua Hegoaldeko iredugarritzat aurkeztu nahi izatea. Zer pentsa eman beharko luke, bestalde, Iparraldeko idazle klasiko zahar zein berrien berredizio gehienak non eta Hegoaldean argitaratzeak, Etxepare bienak barne.

³⁷ Arrazoi berberetatik, tamalgarria iruditzen zait, eta hizkuntzaren batasunerako erabat kaltegarria ere bai, herriko euskalkia edo lexiko berezia aspaldian galduak direnean, hor, euskara batu estandarra irakatsi beharrean, noizbaiteko euskalki zendua berpizten jardutea: Erronkarin erronkaria, Otsagabian bertako euskalki hila, Bizkaiko Enkarterriko museoko erakusgaiak espainiera batuan eta bizkaieraz (!) errotulatzeko edota, Bilbo moduko hiri nagusi batean, euskara estandarreko *Inauteriak* hitz amankomuna sendotzera lagundu barik, Udala oraindik *aratusteak* moduko bitxikeriak bultzatzen ahalegintzea, bizkaitar gehienentzat ezezagunak, erdaraz, gisa bereko *antrujeo* edo *carneistolendas*-en ordeztu, *Carnaval* batua kontsokratuz. Besterik da, noski, tokian tokiko lexiko ezagun eta arruntari eustea.

Interesgarriagoa da, ene ustez, zehazki nazioarteko kontzeptu estandari-zatuekin bat etorri zein etorri ez, baina zehaztasun osoaz muga daitezkeen esangura bereziak adierazten dituzten hitz lokal eta dialektalei hautsa kendu eta, literaturaren ate nagusitik sartuta, eredu baturako berreskuratzea, jadanik Axularrek urratu zuen bideari garraizkiola: *ahalke = lotsa, alderrai*³⁸, *aldiriak, amankomun, anaia / neba, behatu, behearen gainean, bertan / berton, egoiliar, erreximenta, guraskide, etsai = arerio / izterbegi, hatz / behatz / eri, haurride, hautsi-mautsi, herabe, kalaka, kausitu, kuxidade, lekuko, lili, nasa, neba-arrebak, nerabe, sehi / sein, so egin, txukun, udatiar, ugazaba, ulertu, urde, urineko, xukatu, nortzuk, zertzuk, zeintzuk...* gisakoak, adibidez, norbere eskualdeko berbak ez direlako aitzakiaz, horietako anitz sistematikoki saihesten ibili beharrean, tamalez batzuek oraindik egiten dutenez.

Izan ere, gure dialektotetako aldaerak inoiz oso baliagarriak gerta dakizkiguke, sinonimia aberastu edota zalantzak argitzeko. Esate baterako, toki askotan zuhaitzen kimei eta animalia batzuen buru gaineko irtengune gogorrei berdin deitzen zaie euskaraz: *adarrak*. Ez da hor zer esanik. Gauzak horrelaxe dira eta, frantsesez edo ingelesez, hurrenez hurren, *bois* eta *wood* berbek berdin-berdin gure *baso / oihan, zur* eta *egur* hitzen balioa ukan dezakete³⁹. Kasu guztiotan, balio biko edo anitzeko hitz horiek preseski zer adierazten duten, testuinguruak argitzen digu. Horrela, batetik *akerraren adar okerrak* eta, bestetik, *haritzaren adar okerrak* diogunean, ez dago euskaldunik noiz zer diogun ongi konprenitzen ez duenik.

³⁸ Euskalkietako hitzak hizkuntza batuan ezagutarazi eta integratzeko era egokienetako bat, testuinguruak berak esangura argitzen dien toki egokian hitzok tartekatzeaz gainera, berba horiek artikuluen edota liburuen izenburuetan erabiltzea izaten da. Horrela jokatu berri dut, adibidez, Klasikoak bilduman argitaraturiko Mošeh ben Maimon ‘Maimonides’-en filosofi obra ezagun baten izenbururako (*Alderraien gidaria*) ‘nora joan ez dakiena, galdurik dabilena’ esan nahi duen *alderrai* mendebaldeko hitz hori aukeratzean, beste erdaretan *The Guide for the Perplexed, Guía de perplejos, Le Guide des égarés* gisa itzuli dena adierazteko. Arabierazko jatorrizko izena **دلالة الحائرين** *Dalalat al-ḥā’irīn* izan zen, hau da, ‘alderrai edo norarik gabe galdurik dabiltzanen gida’ (= ‘gidaritza edo gidaliburua), baina Ben Maimonen ikasle izandako Šemu’el ibn Tibbon-ek egindako hebrear itzulpena, bere maisuak berak berrikusia eta onartua, **מורה הנבוכים** *Moreh ha-nēbūkim* izenburuarekin agertu zen, hots, ‘alderraien gidaria’ (= ‘pertsonea’).

³⁹ Eta frantsesaren kasuan [‘oreinaren] *adarrak*’ ere bai. Euskaraz, dena den, idazle eta esatari batzuen arduragabekeriagatik, aspaldi honetan euskara jatorrezko *zur* eta *egur* hitzek daukaten esangura bedera nahasi eta zenbaitzuk soilki *egur* erabiltzen hasi dira, *zur* berba ez balitz bezala. Euskadi irratian, adibidez, *egurrezko altzariak* edota *egurrezko panelak* bezalako desegokikeriak entzuten ditugu maizegi. Egia da, testuinguru oso mugatuetan erdaraz ere badirela *en casa de(l) herrero cuchillo de palo*, edo *una cuchara de palo* modukoak, baina inori ez zaio burutik pasatzen *muebles de palo* edo *una puerta de leña* gisakorik esatea, horretarako *madera* hitza jada ondo finkatu eta kontsaktururik dago eta.

Problema, ordea, testuingururik ez denean gertatzen zaigu: *adar hautsi-ak*, poema edo liburu baten izenburu gisa irakurtzean adibidez; edota ustezko testuinguruak engainatzen gaituenean. Adibidez, Altubeko oihanean, orein asko bizi dira, eta han arrek urtero beren adarrak botatzen dituzte. Horregatik mendizale batzuk haraxe joaten dira, adar erori horien bila. Hortaz, besterik gabe, *basora doaz*, *adar bila* entzunda, edozeinek pentsa lezake pertsona hori hara egur bila doala, eta ez oreinen adarren bila. Horrexegatik, Kirikiñok bere obrari, beste barik, “Adarrak” izena jarri izan balio, hortik erraz atera genezakeen ezkondu infidelen kontuaz ari zela, eta ez, metaforaz izanik ere, sua egiteko biltzen direnez.

Hona hemen etsenplu konkretuago bat. Sir James George Frazer etnologo ospetsuak obra ezagun bat idatzi zuen, *The Golden Bough*, gaztelaniaz *La rama dorada* izenaz itzulia. Hori euskaraz esateko orduan arazo bat gertatzen zen. Izan ere, itzulpenean *Urrezko adarra* emanez gero, esangura ez legoke garbi, horrela berdin uler bailiteke Turkian, Istanbul ondoan aurkitzen den lur muturraren izenaz ari garela, erdarez *The Golden Horn / El cuerno de oro / La Corne d’Or* deituaz, turkieraz *Haliç* deritzonaz.

Arrisku hori saihesteko, aski zen *adar* formak eremu zabal handian⁴⁰ daukan beste aldaera, *abar* alegia, erabiltzea: *Urrezko abarra*, alegia, Klasikoak bilduman, zuhurki, egin den bezala. Era honetako itzultze-erabilerak dira, hain zuzen, euskalkien lexiko berezitasunak eta bikoteak berreskuratatu eta hizkuntza batuan zeregin eta esangura zehatzetan finkatzera laguntzen dutenak, euskara egiatan aberastuz⁴¹.

ESANGURAK ZEHAZTU BEHARRA

Bazterretan esaten eta idazten dena ikusita, behin eta berriro azpimarratzekoa da, edozein herri-hitzek, hizkuntzalaritzako axioma gaizki ulertuak

⁴⁰ Mendebalde osoan erabiltzeaz gain, ekialderantz ere oso hedaturik egon da forma hau. Lizarra aldean, Etaian hain zuzen, Gregorio Monrealen lekukotasuna hona ekarriz, oraindik ere *ir al monte a por abarras* esaten omen da, eta erdaraz mintzatzean ere euskal hitz zaharra gordetzen. Pello Etxaniz-en *Lizarrako euskara/Historia de la lengua vasca en Tierra Estella* liburuan datorren hiztegitxoan ere gauza bera esaten da: **Abarras**: del vasc. abar ‘rama’. Se utiliza en plural y referida a las ramas secas, en algunos lugares se ha reducido su significado a ‘ramas de encino’. Altaffaylla, Estella-Lizarra, 2004, 146. or.

⁴¹ Edonola ere, *adar* hitzak, erdarazko *cuerno*-k bezala, ‘musika-tresna’, ‘fabrika bateko sirena’ eta ‘infidelitatearen seinalea’, esangurez batera, Bizkaian eta Zuberoa aldean behintzat ‘zapatak janzen laguntzeko esku-tresna’ ere esan nahi du.

gora behera, ez duela beti literaturan eta zientzi terminologian erabilia izateko baliorik, erregistro-maila, gizarte-sentierak, tradizio-pisua eta nahasbide-arriskua aurka baldin baditu.

Ex abundantia cordis os loquitur delakoagatik, euskaraz agian lizentzia handiegiaz baliatuz *zakurrak non mina han mibia* itzul nezakeenagatik, uste dut irakurleak barkatuko didala hurrengo etsenplu batzuk, gehiegitxo segur aski, neure gogoko arlo batetik ekartzea, biologiatik, hain zuzen, gai horietan bederen, informazio ona izaten dut eta.

Kantabria osoan tximeletari *palomita* esaten bazaio ere, hango guztiek *mariposa* darabilte idazteko orduan. Bertakoek euskaraz *arrabioa* deitzen den anfibiaori (*Salamandra salamandra*) *escorpión* edo *escurpión* deitu arren, (Cfr. “*si te pica un escurpión, prepara la pala y el azadón*” atsoitza, ziztatua laster hilko delakoan), begien bistan da berba hori ez dela inondik ere aproposa animalia hori izendatzeko, erdara estandarrean *escorpión* artropodo pozoitsu bat delako, Kantabrian bizi ere egiten ez dena, hegoaldeko Espainian *alacrán* ere deitua⁴². Antzeko arrazoiengatik, nahasbidea ekiditeko, ez du erdara batuan arrakasta handirik izan, *ovejita* hitzak ere, Andaluzia aldean, ‘erlea’ esateko, oso erabilia izan arren⁴³, gure artean, hizkuntza idatzian behintzat, erdialdeko *arkakuso*-k mendebaldeko *ardi* “ezerosoa” baztertu duen bezalatsu.

Ez dezagun uste ukan, ordea, zehaztasunaren problema euskaldunon kontu hutsa denik. Terminologia zehazteko orduan, zientziaren premiak bortxaturik, hizkuntza guztiek une batean sinonimo lokalen artean zirt edo zart egin behar izan dute, bakoitzari bere hautabidezko eremu semantikoa emanez. Gureak besteek baino beranduago erdietsi du ofizialtasuna, eta horregatik haiek mende askotan bideraturiko finkatze hori guk, ezin bestean, presaka lortu beharko dugu. Ez datorkiguke gaizki Roger Bacon britainiar filosofoak 1262an idatzirikoa gogoratzea:

⁴² Horren euskal kidea gure *lupua* litzateke (< lat. *lupus* ‘otsoa’), hots, herri-pentsaeran ‘pozoitsua omen den edozein animalia txiki’, gure literaturan, inolako zehaztasunik gabe, aldizka ‘eskorpioi’, aldizka ‘beldar’, aldizka ‘intsektu itsusi’, aldizka ‘arrabio’ gisa aurkeztua.

⁴³ Halere, dibulgazio zientifikoa, beti hitz berbera erabiltzeko monotonia kentzeko, esanguran kontraesanik ez dagoenean behintzat, guztiz zilegi da hitz estandarren ordeztu beste mailako sinonimoez ere aldizka baliatzea: eusk. *amona mantangorri*, *marigorringo* eta *katalingorri*; *aurkitu* eta *kausitu*; *bele* eta *erroi*; *eguzki* eta *eki*; *kirikino*, *triku* eta *sagarroi*; *lore* eta *lili*; *saguzar* eta *gauenara*; *sai* eta *putre*; *zilar* eta *urrezuri*; fr. *abeille* eta *mouche à miel*; *blé* eta *froment*; esp. *burro* eta *asno*; *perro* eta *can*, ingl. *flower* eta *bloom*; *film* eta *picture* etab.

“Eskritura Sainduak grezieratik edo hebreeratik itzuliak dira eta filosofia arabieratik itzuli da, bai eta beste hizkuntza bi horietatik ere. Oraindik ezinezkoa da mintzaira baten ezaugarri bereziak beste batean gordetzea, hizkuntza berean esaerak berak bere hiztunen artean ere ezberdintzeko joera izaten dutelako, frantsesean nabarmen ageri denez. Paristarrek, Pikardiarrek, normandiarrek edo Borgoinakoek perpausak esangura ezberdinaz erabiltzen dituzte. Pikardian zuzenesten denak Borgoinakoak ikararazten ditu, eta paristarrek ere bai, haiek itxiagoak direlako. Eta hau hizkuntza beraren baitan gertatzen bada, pentsa bedi zer neurritan ez den gertatuko hizkuntza ezberdinen artean. Beraz, mintzaira batean ongi esaten dena ezin daiteke beste batera era berean alda”.

Mende batzuk geroago ordea, badirudi frantsesa aski egokiturik eta finkaturik zegoela, eta Montaignek, adibidez, jada euskara edo bretoiera moduko hizkuntzei aurpegiatzen zizkien Bibliaren itzulpen zuzenak egiteko zailtasun eta eragozpenak, hori egokiro burutzea ere posible zela zalantzan jarritz⁴⁴.

Harira gatozela, zientziaren, zehaztu-nahiaren edota merkataritzaren premiak kontuan hartuta, begien bistan dago ezin direla sinonimoak eta erdi-sinonimoak edonola erabil, ondorioz nahasbidea sortzea nahi ez bada behintzat. Hortxe dugu, adibidez, gure *hizki* famatua. Hitz hori, jatorriz, hitzaren morfema berezi batzuk adierazteko asmatu zen, hitz eratorrien sorrarazleak (erdarez *afijo*, *affixe*) batez ere, aurrean (*aurrizki*), tartean (*artizki*) zein atzean (*atzizki*) joan daitezkeenak, baina garbizaleek beste esangura ezarri nahi izan diote, hots, ‘letra’rena, eta hortik nahastea sortu zaigu. Horrela, gramatika arlo berezian nahitaez aipatu beharreko balio biko berba hori inolako irizpiderik gabe erabiliz, era honetako perlak sor litezke: “-tasun *hizkia bost hizkirekin idazten da*”, zeini bere izen propioa eman ez erraz sai-hets daitekeena: “-tasun *hizkia bost letrarekin idazten da*”.

Gauza bera gertatzen zaio, mendebaldeko euskaran bederen, *behar egin behar da* edo *behar handia daukat* gisako esaldien lekuan, gero eta gehiago entzuten dira *lan egin behar da* edo *lan handia daukat* modukoak, edozein tokitako euskaldunentzat ulergarriagoak. Anfibologi arrisku berberagatik, segur asko, galdu du hitz horrek behiala zeukan beste esan-nahi hura, ‘errua’ alegia. Izan ere, Lazarragaren testuetan (1564) ongi dokumentatzen den arren: *ene bearra da, ezta çurea* (1193v), 1596ko esaera zaharretan jada gaizki uler-

⁴⁴ “Badakigu Euskal Herrian eta Britainian badiren epailerik aski beren hizkuntzaz egin itzulpen horren ezartzeko?” Michel de Montaigne, *Entseinak I, LVI*, Klasikoak, Bilbo, 1992, 276. orr.

tua zen: *Odol bearbagea* “sangre sin ser necesaria” 208 RyS, eta arkaismo horrek Mogelen garaian sinonimo argigarria behar zuen: “*Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo culpa*” (*Conf. ta comuniocio sacr.* 189).

Puntu hau bereziki ukitu behar dela uste dut, euskaraz, oraindik, erabateko normalizazioa ez dugulako, hitz mordoa baitago, tokian tokiko erabilera bereziagatik, esangura ezberdina eta zehaztu gabea duenik, eta inoiz elkarren kontrakoa ere bai. Nabarmenenetako bat *loba, iloba, biloba* hirukotea dugu, euskalkien arabera ‘neba-arreben haurra’ edota ‘seme-alaben haurra’ eta are ‘seme-alaben haurren haurra’ ere esan nahi dutenak. Txillardegik behin baino gehiagotan azpimarratu duenez, arazoaren sustraia antzinako familiaren kontzeptuan datza, zeinetan hitz horrek ‘senide hurbil baten haurra’ esan nahi baitzuen, senide hori haurridea zein norbere haurra izan zitekeelarik.

Kontua, ordea, hauxe da: gaurko euskaldunok aspaldiko mendeetan mendebal zibilizazioan garatu den famili egituran murgildurik gaude, eta hor ongi bereizten dira, alde batetik neba-arreben haurrak (esp. *sobrino, -a*, fr. *neveu / nièce*, ing. *nephew / niece*, al. *Neffe / Nichte*) eta bestetik norbere seme-alabenak (esp. *nieto, -a*, fr. *petit-fils / petite-fille*, ing. *grandchild [grandson / granddaughter]*, al. *Enkel(in)*), eta horrek, nahitaez, senidetasun-harremán horiek zehatz adierazteko hitz homologatuak edukitzera behartzen gaitu, ez baitu hor ezertarako balio euskalkien ugaritasuna aipatzeak, delako aberas-tasun horrek iluntasun eta nahasbidera garamatzanean. Beraz, korapilo hori askatzeko, lehenbailehen, arbitrarioki bada, ere, erabaki bat hartu beharko da, hizkuntza estandarrean bederen, hitz horietako bakoitzaren esangura behin-goz finkatzeko.

Beste horrenbeste gertatzen da, adibidez, aditzen ondoan *orduko* jartzen denean. Horrela, *etorri orduko* perpausak leku batzuetan ‘etorri baino lehenago’ esan nahi du, baina beste batzuetan, aldiz, ‘etorri bezain laster’. Ondorioz, argitasunagatik, entzule edota irakurleak mezua oker uler ez dezan, jendeak era horretako esaerak baztertzeko joera du. Ordea, esangura hedatuenaren edota literaturako ohikoenaren arabera, *orduko* hori finkatuko balitz, bi esangura horietako bakarra ukan lezan, ez legoke arazorik mundu guztiak lasai erabiltzeko. Horrelako zerbait gertatu zen, adibidez, hilabeteen izen batuak erabakitzeko orduan *garagarrila* hitzarekin. Gipuzkoan ‘ekaina’ eta Bizkaian ‘uztaila’ esan gura zuela eta, azkenean, arazoa saihesteko, bazter-turik gelditu zen, beste bien fabore.

Alderantzizko kasuak ere baditugu geure hizkuntzan, hots, berez sinoni-mo ez diren arren, halakoak balira bezala erabiltzen ditugun hitzak alegia: *zur / egur, jokatu / jolastu, haragia / okela, hodei / laino, ibai / erreka, ala / edo*. Hauen arazo nagusia hauxe izaten da: toki batzuetan, bi hitzak jakinda, hiz-

tunek biak balio banaz erabiltzen dituzte, baina beste leku batzuetan, ordea, horietako bat besterik ez dakite, eta bakar hori esangura bietan erabiltzen. Kasu hauetan, zeini bere esangura zehatza ematen ez bazaio, azkenean bikoteko bata nagusi geldituko da, aspaldian *egur*, *jolastu*, *laino* eta *edo*-rekin gertatzen hasi den bezala, *zur*, *jokatu*, *hodei* eta *ala* jatorrak ia erabat baztertzeraino heldurik, orain arteko euskara aberatsagoaren kaltean.

Hizkuntza askotan gertatzen da hasieran sinonimo hutsak izandako hitzak denboraz espezializatorantz joatea, azkenean errealtate antzeko baina ezberdinei atxiki arte. Gaztelaniaz, adibidez, *tortuga* eta *galápago* hitzak sinonimo hutsak ziren, bata latinetik eta bestea, bide bitxietatik bada ere, arabieratik heldua. Izen horiekin narrasti oskoldunak adierazten dira, bai lehorrekoak (*Testudo graeca* eta *Testudo hermani*) eta bai uretakoak ere (*Emis orbicularis* eta *Mauremis caspica*). Espainolak Amerikara heldu, Ekuatore aldeko artxipelagoa aurkitu eta bertako dortoka handiak ikustean, *Islas Galápagos* deitu zieten, gaur arte dirauen izenez. Geroago, ordea, Espainian *galápago* berba eskuarki erabiltzen den eskualdean nagusiki aurkitzen diren dortoka bakarrak uretakoak direnez, herpetologoaren artean *galápago* uretako dortokei hasi zitzaien esaten, eta gaurko erabileran, *tortuga* eta *galápago* ez dira jada erabat sinonimo espainieraz, lehena generikoa eta bigarrena aurrekoaren talde mugatuago bat izanez, hots, erreka-aintziretakoak, euskarazko *ume* eta *haur* hitzekin gertatzen den bereizkuntza bezalako bat sortu arte⁴⁵.

Era berean, gure haurtzaroan irakasten ziguten *mariposas diurnas* eta *mariposas nocturnas* bereizketa hura, oraingoan ingelesaren eraginez (*butterflies / moths*) *mariposas* eta *polillas* bilakatu da, inoiz euskaraz mimetikoki *tximeletak* eta *sitsak* gisa itzuliak. Bestetik, intsektu odonatuen bi talde nagusien kideak izendatzeko orduan, inguruko erdaretan beren *caballito del diablo / libélula* eta *demoiselle / libellule* bikoteekin oso bereizketa aproposa lortu dute, lehenak airean saltoka bezala hegaz dabiltzan eta pausatzean hegoak bertikalean uzten dituzten sorgin-orratz meheagoak (Isopteroak, Agrionidoen familiakoak) adierazteko, eta bigarrenak intsektu handiagoak eta pausatzean hegoak horizontalki uzten dituzten burrunziak (Anisopteroak, Libelulidoen familiakoak) aipatzeko utzirik. Euskaraz, neke handirik gabe,

⁴⁵ Euskal Herrian aurkitzen den kelonio bakarra *Emis orbicularis* da, Nafarroa eta Arabako urmael batzuetan basa bizi dena. Horren euskal izen klasikoa, gutxienez XIX. mendearen erdialdetik dokumentatua, *apoarmatua* da, alemanezko *Schildkröte* (= ‘ezkutu(dun) apoa’) antzera osatua, eta, berez, gaztelaniazko *galápago*-ren kidea da esanguraz. *Dortoka*, itxura denez, gure literaturan berriagoa da, eta erabilera orokorra du, gaztelaniazko *tortuga* bezalatsu.

gauza bera egin genezake geure *sorgin-orratz* / (*txitxi*)*burruntzi* ezagunekin ere.

Terminologia ez finkatzeak, gainera, arazo handiak ekar diezazkiguke. Pentsa dezagun zer nolako nahastea sor litekeen gure zoologi liburuetan euskaraz *ziraun* izena, oro har *Anguis fragilis* musker apodoa esan nahi duena⁴⁶, aldi berean zenbait lekutan daukan ‘sugegorri, bipera’ balioaz erabiliko balitz⁴⁷. Eta Ibon Sarasola lagunari, ingelesezko *shrimp* hitzaren balio anitza aipatuz, euskal *izkira*, oro har, erdarazko *quisquilla*, *camarón*, *quisquillon*, *gamba* eta *langostino*-ren balioaz erabiltzea proposatu digunari, adiskidetsuki esango nioke joan dadila edozein arrandegitara horrelako euskara “jatorra” erabiliz, ea zer ulertuko lioketen, ez baitut uste, euskaraz izen berbera dutelako aitzakiaz, zikalak ganben prezioan salduko dizkietenik⁴⁸. Edonola, *beharrak zaharra merkatura* delakoagatik, zuhurrago dabilta, oro har, gure gainerako hiztegieleak.

Antzeko arazoa gertatzen da *ekilore*, *eguzki-lore* eta *eguzki-belar* hitz itxuraz sinonimoekin ere, hiztegien arabera, hiru izenok bai eguzki itxurako lore handiak dauzkan eta jateko haziak eta olioia ematen duen landarea

⁴⁶ Bilboko erdaran ene haurtzaroan euskaratiko hitz batzuk bizi-bizirik zeuden oraindik: *saguchu*, *sogalinda* ‘*sugandila*’, *no dejar ni los ondaquimes...* . Horietako bat *sirón* zen, hots, euskarazko ‘zirauna’, beti ere pozoirik gabeko narrasti hankagabea adierazteko, frantsesez *orvet* deitua. Horren erdal izen “garbia” ez genuen ikasi askoz ere beranduagora arte. Alde batetik *enánago*, eta berorren aldaera *enano*, Enkarterri, Burgos eta Santander aldean erabiliak, eta bestetik *lución*, liburuen bidez finkatu dena. Narrastiei buruzko ikerketak eta bibliografia handitu ahala, zehaztasun-nahiak eta beharrak beste erdal sinonimoak erabat bazterturik utzi ditu aspaldion, adibidez *culebr(ill)a frágil* edo *culebr(ill)a de cristal*; seguraski izenaren desegokitasunagatik, izan, ez baitira sugeak. Bestea, *culebrilla ciega* alegia, okerragoa zen. Animaliaaren hedadura-mapari begiratzuz gero, argi dago *zirauna* penintsularen iparraldeko eskualde hezeetan bizi dela (Galizia, Asturias, Kantabria, Euskal Herria...) eta erabat falta dela erdialde eta hegoalde lehorrean. Hor baina, bada begirik gabeko beste narrasti hankagabe bat (*Blanus cinereus*), anfishenidoen taldekoa, eta horko erdaldunek, gure zirauna inoiz ikusi gabeek, biak animalia bera zirelakoan, horrexen izena ematen zioten gureari ere. Gaur, ordea, gauzak zuzendu dira, eta fauna-eskuliburu guztiak *culebrilla ciega* esandako *Blenus cinerea*-ri egokiarazten zaio. Halere, RAC-en hiztegiak dioena egia bada behintzat, *lución* hitza azken buruan latinezko **luscidus* <*luscus* ‘itsu’ baldin bada- tor, izen horretan ezkutaturik dirauke gorago aipatu den okerrak.

⁴⁷ Arrazoi berberagatik, *salamandra* eta *salamandria* berbak hiztegiatan oraindik *salamanquesa*-ren sinonimotzat agertu arren, erabat bazterturik daude literatura berezitutik hormetako dragoitxoei (*Tarentola mauritanica*) izena emateko, *salamandra*, soilki, euskaraz *arrabio* deritzon anfibioari baitagokio.

⁴⁸ Beherago azalduko denez, euskaraz izkiren itxurako krustazeoak bereiztekotan, ganbak eta zikalak izenak hobetsi beharko genituzke, *otarrainxkak* espainolez *cigalas* deritzenentzat utzirik.

(*Helianthus annuus*) eta bai gure baserrien ateetan jartzen den kardu zapal handia (*Carlina acanthifolia*) adierazten dituztelako. Azaleko itxura gorabehera, genero erabat ezberdina duten bi landare izendatzeko izen guztiok berdin erabiltzen diren bitartean, ez dira baliagarriak izango, nahasmendu-iturri baizik⁴⁹. Hortaz zentzuak eta premiak eskaturik, badirudi, jadanik hiztegi batzuetan egiten hasi denez, egokiena litzatekeela *eguzki-lore* tradizionala karduari esateko uztea, eta *ekilore* moldatu berria⁵⁰, aldiz, atzerritik ekarritako oliolandareari deitzeko, berau, laburragoa izanik, egokiagoa delako *ekilore-olioa* bezalako elkartuak egiteko, bestea baino⁵¹. *Eguzki-belar* delakoari dagokionez, bai erabilera urriagoatik eta bai landare hori deskribatzeko hitz elkartu aski desegokia delako (nekez esan dakioke *belar* metro bat baino luzeagoa den landare bati, edota, zurtoinik ezaz lurretik altxatu ere egiten ez den besteari) agian onena saihestea litzateke, erdaraz, adibidez, ‘erlea’ esateko, nonbaiteko *moscas de miel / mouches à miel* ereduak baztertuz edo bigarren mailara iraganez joan diren bezala, *abeja* eta *abeille* estandarizatuen mesedetan.

Jean-Henri Fabre entomologo ospetsuak intsektuez idatziriko obra famatuan, txitxarrari eskaintzen dion kapituluan⁵², La Fontaine-ren alegia eza-

⁴⁹ Eta okerrago dena, azkenean elkar ulertzeko, inguruko erdaretara jo beharko, beroriek, orain arte bezala, hizkuntza serio, segur, arautu, argitzaile eta zehatz nagusizat kontsokratuz.

⁵⁰ Izatekotan, birmoldatua da *ekilore*, Zuberoa aldean, karduari esateko bederen, *eki-lilia* baita. Gogoan izan, bestalde, gure *ekilore*-ren bidetik sortuak direla, halaber, ing. *Sunflower* eta al. *Sonnenblume* ere.

⁵¹ Hitz bat aukeraterakoan, hitz elkartuetan maiz ukan dezakeen jarrerak ere bere garrantzia dauka, eta ez txikia. Gaztelaniaz, adibidez, errepikapena ekiditeko, *aceite de oliva* esaten da, hitzik arruntena *aceituna* den arren. Halaber, *Leopardo* eta *pantera* animalia berberaren izen sinonimoak izan arren, *pantera negra* besterik ez da erabiltzen gaztelaniaz, eta ez *leopardo negro* forma luzeagoa.

⁵² Ikus J.-H. Fabre, *Souvenirs entomologiques*, XIII, Ed. Robert Laffont, Paris, 1989, 1052-1054.orr. “A qui revient la responsabilité de ces étranges erreurs? La Fontaine, qui nous charme dans la plupart de ses fables par une exquise finesse d’observation, est ici bien mal inspiré. Il connaît à fond ses premiers sujets, le Renard, le Loup, le Chat, le Bouc, le Corbeau, le Rat, la Belette et tant d’autres, dont il nous raconte les faits et gestes avec une délicieuse précision de détails. Ce sont des personnages du pays, des voisins, des commensaux. Leur vie publique et privée se passe sous ses yeux; mais la Cigale est une étrangère là où gambade Jeannot Lapin; La Fontaine ne l’a jamais entendue, ne l’a jamais vue. Pour lui, la célèbre chanteuse est certainement une sauterelle. / Grandville, dont le crayon rivalise de fine malice avec le texte illustré, commet la même confusion. Dans son dessin, voici bien la Fourmi costumée en laborieuse ménagère. Sur le seuil de sa porte, à côté de gros sacs de blé, elle tourne dédaigneusement le dos à l’emprunteuse qui tend la patte, pardon, la main. Grand chapeau en cabriolet, guitare sous le bras, jupe collée aux mollets par la bise, tel est le second personnage, à effigie parfaite de sauterelle. Pas plus que La Fontaine, Grandville n’a soupçonné la vraie Cigale; il a magnifiquement traduit l’erreur générale”.

guna luzaz maiseatzen du, hots, *La cigale et la fourmi* deritzona, euskaraz eskuarki *Txitxarra eta inurria* gisa itzulia, eta hartan badiosku bai idazleak eta bai haren obren irudi-apaintzaileak ere, hots, Grandville-k, biak Frantziaren iparraldekoak izanez, ez zutela inoiz jakin txitxar delakoa egiazki zer den, intsektu hori, bereziki, hegoaldean bizi baita, eta horren orde, matxinsaltoa zerabilte la buruan.



Ene ustez, horixe bera gertatu zaigu euskaraz ere, eta oraingo honetan erremediorik gabe. Izan ere, gure euskara tradizionalki gorde izandako eremuan bizi den *Cicada* generoko intsektu bakarra, euli handi baten neurrikoa da, oso hegalari eta geldigaitza, eta horrexegatik gizabanako arruntentzat eskuarki ezin ikusizkoa⁵³. Egiazko txitxarra, mediterranearra, intsektu handiagoa da, oso zaratatsua, eta ez da hain izutia izaten. Horixe zen, hain zuzen, greziar alegialariek aipatzen zutena, geroago, La Fontaine-ren gaizki ulertuaz, gureganaino matxinsalto mozorroaz heldua. Gauzak horrela, ene ustez, *txitxar* izena, euskaraz konbentzionalki erdarazko *cigarra* edo *cigale* deritzonari esateko ohi darabilguna, berez ez zegokion intsektu hemiptero horri, ortoptero kantariren bati baizik, hots, kilker edo matxinsalto itxurako bati, *txirrita* bezalatsu⁵⁴. Edonola ere, hoberik eta egokiagorik ezaz, bego horretan euskaraz espaldion finkatua duguna⁵⁵.

⁵³ Egia esan, intsektu hau ikustea guztiz zaila da entomologo eta bildumatzaillearentzat ere, bera kantatzen ari den zuhaitz abarrera norbait hurreratu bezain laster bat-batean isiltzen baita, eta gorputza marroixka eta hegalak gardenak dituenaz, ez da erraza non kokatua den antzematea. Gehiago hurbilduz gero, hegaz egiten du, urrunera ihesiz.

⁵⁴ P. Xarritonen zuzendaritzapean Elkarrek 1997an ateratako euskara-frantsesa /frantsesa-euskara hiztegian oker ulergarri berbera ageri da: **cigale**: tirritta, kilker. txitxar.

⁵⁵ Cfr. Bizkaiko *txirri-txirri* 'kilker', onomatopeia-hitza izanik, georgierazk **ჭრიჭინა** *č'rič'ina* –rekin antza duena. Segur aski *txitxarra* izena hasieran *Ephippiger* generoko kilker berde potolo hego gabeari zegokion euskaraz. Horiei penintsulako leku askotan "cigarras, chicharras o cigarrones" deitzen zaiela azaltzen du Espasa Entziklopediaren lehen edizioak.

Gaztelaniaz, dena den, gauza bera gertatzen da, eta jende gehienek ez dute behin ere benetako txitxarrrik ikusi. Are gehiago, asko dira *cigarra* arkanbeleari (= *Lucanus cervus*) deitzen diotenak, agian kakalardo horrek beren baraila luze eta sendoen artean batzuek jartzen dizkioten zigarroak hartzen dituelako, *cigarro-cigarra* izen-kidetasunean oinarriturik nonbait. Gogoratu behar da, bestalde, izen-jatorri bera duen itsaski ezagun baten kasuan, *zigala* izkira edo ganba handi eta zapal bati esan zaiola tradizionalki Euskal Herrian. Aldiz, *otarrainxka* edo *langostino* erreka karramarro edo abakando itxurako beste txikiago bat adierazteko erabili da, oskol gogor eta pintza zorrotzak dauzkana, frantsesez *langoustin* deitua, hain zuzen. Azken hamarkadetan baina, espainol erdararen eraginez, berorri *zigala* irizten hasi zaió, absurdoki *langostino-otarrainxka* izkira handientzat utzirik. Ene ustez, itxura-kidetasunaren logikaren arabera, euskaraz lehengo erabilera jatorra gorde beharko genuke⁵⁶.

ITZULGAIA ONGI ULERTU BEHARRAZ

Itzulpen-kontuen haria berrarturik, ez genuke ahantzi behar Georges-Louis Leclerc frantses ilustratuak, Buffon kondeak alegia, bere *Discours sur le style*-n (1753) ongi idazteaz zioena, hots, “*Pour bien écrire, il faut donc posséder pleinement son sujet...*”. Hori ondo itzultzeari ere aplikatu dakioke, eta gogorarazi, itzultzaileak, jatorrizko eta helburuzko hizkuntza biak ongi jakiteaz gainera, itzuli behar duen gaiaren jabe ere izan behar duela, gaizki ulertuak saihestu ahal izateko.

Xota Rustavelik, XII **არ ძალ-უც სრულ-ქმნა სიტყვათა გულისა** ^{ela} **გასაგმირეთა** n zituen: *ar dzal-utz srul-kmna sit'qvata, gulisa gasagmireta*⁵⁷ “Horrek ez daki zein hitzek hunkitzen duen bihotza”⁵⁸, eta esaldi hori ere, itzultzailei

⁵⁶ Mikel Morrisek bere euskal-ingeles hiztegian erdarazko ‘cigala’ *Norwegian lobster* itzultzen du, hots, ‘norvegiar otarraina’, krustazeo hori, itxuragatik, ganbekin ez baina otarrainekin elkartuz, hau da, gure otarrainxkekin, frantsesez bezala. Erdal *langostino*-a, aldiz, hots, gure *zigala*. ainatu hiztegiaren arabera. ingelesez *brawn* deitzen da.

⁵⁷ **ძოთა რუსთაველი, ვეფხისტყაოსანი, ტექსტი და ვარიანტები, გამომცემლობა მეცნიერებათა აკადემიისი 1966** (Sota Rustaveli, *vepxis-t'q'aosani, t'ekst'i da variant'ebi*, gamomcemloba mecniereba, Tbilisi, 1966) Edizio kritikoa, 16. berts. 2. ler.

⁵⁸ Ikus Rustaveli, Xota, *Zaldun tigrelarruduna*, X. Kintanaren itzulpena, Alfaguara-Zubia, Madril, 1999, 16. or.

egokiaraziz, zinez esan genezake itzultze-lana hitzez hitzeko aldatze lana barik, berba eta esaldi egokien etengabeko aukera dela, urreginak bere lanerako harribitxiak maisuki hautatzen duen xehetasun eta arta berberaz. Horrez gainera, itzultzeko lana literaturazko obra garrantzitsua baldin bada, itzultzailea egilearen barruan sartzeko ahalegina egin behar du, aktore ona bere pertsonaiarekin identifikatzen saiatzen den bezala

Gauza jakina da azteken apaizek piramide erpin motz itxurako beren tenpluetan jainkoei giza sakrifizio odoltsuak opetsi ohi zizkietela, inoiz biktimen bularra ebaki eta barrutik bihotza oraindik taupadaka atereaz. Bazen ordea, hori baino sakrifizio lazgarriagorik. Holakoetan apaiz nagusiak pertsona bat hil eta kontu handiz hari larrua kentzen zion, eta ondoren, oraindik odola zerion larru horrekin jantzirik agertzen omen zen tenpluaren goialdea, zereoniarekin segitzeko⁵⁹. *Mutatis mutandi*, –eta barka nazazue hain ekintza odoltsu eta makabroa hemen aipatzeagatik– itzultzaileak antzeko zerbait egin behar duela esango nuke, hots, bere gainean jatorrizko idazlearen larrua jantzi, edo haren barruan sartu eta hark bere hizkuntzan jardun bezala beste hizkuntzan aritu, bere pertsonaiaren psikologia ongi barneraturik daukan teatro-antzezlea bezala jokatu.

Gure hizkuntzari doakionez, horrek esan nahi du, euskaratzaileak, itzuli edo moldatzeko eman dioten gaia, ongi ulertzen ez badu, gutxienez horretaz diren hiztegien eta are bibliografia bereziaren berri ere ongi jakin eta horiek behar bezala kontsultatu beharko lituzkeela, bestek aspaldian aurkitu eta jada ongi bataiaturiko kontzeptuak berriro asmatzen ibili gabe. Eta Mediterraneoan aspaldian aurkitua dela gogoan izan⁶⁰.

Izan ere, askotxo dira, beren buruak profesionaltzat dauzkaten itzultzaileek egiten dituzten okerrak, eta hor argi ageri da, dirudienez, euskaraz tutik jakin gabe gure mintzairan liburuak argitaratzen dituzten argitaratzaileen kali-

⁵⁹ LEONARD, Jonathan Norton, *América precolombina*, Time-Life books, Amsterdam, 1979, 63. eta 67. orr.

⁶⁰ Inoiz sinesgaitza izaten da noraino hel daitekeen beren burua itzultzailetzat daukaten pertsona batzuen zabarkeria. Orainsu Banaka Multimedia argitaldaria haurrentzat plazaratu duen liburu ongi apaindu batean, *-Olentzerori buruz jakin behar duzun guztia* deritzo- gure ikazkinak, guztiok dakiguna errepikatuz, ardoa edaten duela esaten da, eta haren ondoan kokaturiko zahato arruntaren azpian *zahagia* hitza jarri da, *zahatoa* eta *zahagia* gauza bera balira bezala. Liburu berean, *txuletoia*, *txuletona* eta *txuletatzarra* irakur daitezke, inolako batasun eta koherentziarik gorde gabe. Edozein hiztegi ireki izan balu, euskaratzaileak erdaraz ere *pellejo* eta *bota* artean dagoen aldea ikas zezakeen. Eta beti ere haurren mundutik irten gabe, ez dut hemen gogoratu nahi *Erpurutxo* eta *Mari Errauskin* ipuin ezagunak lasai aski *Pulgarzito* eta *Zenizienta* izenez plazaratu zituen editoriala.

tate-kontrolik eza. Haurrei eta gaztetxoei begira egindako itzulpen batzuk aipatzera noa, Gabon-jaiotan opariak egiteko asmoz esku artean erabiliak.

Aurten Tarttalo argitaldaria *1.001 galdera eta erantzun. Ezagutzaren mundua* izeneko liburu eder eta ilustrazioz betea plazaratu digu, zazpi itzultzailearen artean euskaratua. Alde batetik, intsektu famatu batzuen izenak, inongo hizkuntzatarara itzultzen ez diren arren, euskaraz eman dira, eta gaizki. Eskuarki bere izen zientifikoaz aipatzen den *Dynastes hercules* hori ez baita “errinozero kakalardo” (40. or.), izen hori *Oryctes nasicornis* deritzonari ematen zaio eta. Era berean, 57. orrialdean *Sarracenia purpurea*-tzat erakusten den landare intsektu-jalea, izenak dioena barik, *Nepenthes* generokoa da, eta 45. orrialdean ageri den anfibioa euskaraz *uhandrea* deitzen da, eta ez “tritoia” erdarakada merkea.

Argialetxe berberak, urte berean, haurrentzako beste bi liburu ilustratu bikain eskaini dizkigu: *Haritza bizileku* eta *Larrea bizileku* deritzenak. Kortesian orrian obra horien jatorrizko izenburuak italieraz agertzen badira ere (*Vita intorno a un albero* eta *Vita in mezzo a un prato*), badirudi euskaratzaileek beren lana ingelesezko itzulpen batetik burutu dutela, ondoren esango dudanaren argitan. Liburutxo horretako batean Euskal Herrian bizi den sugerik handiena aipatzen da, hots *Elaphe longissima* deritzona.

Narrasti hori Aesculapius edo Eskulapioren maskotatzat hartzen zen Erroman, hots, medikuntzaren jainkoaren gogoko animaliatzat –grezieraz Asklepio deitzen zenaren latin-aldaera– eta hori gogoratzen digu oraindik Farmazia askotan kopa baten inguruan horrelako sugea agertzen duten irudiek. Tradizio luzeko sineskera horretatik heldu da Europako hizkuntza askotan suge eder horrek duen izena: gazt. *Culebra de Esculapio*, fr. *Couleuvre d’Esculape*, al. *Aeskulapnatter*, ingelesez jainkoaren izena era adjektibalean emanik: *Aesculapian snake*. Gurean U.Z.E.I.k, oso egoki, duela hogei bat urte jada *Eskulapioren sugea* gisa eman zuen, eta ez, bibliografia ez mitologia jakin gabe, aipaturiko liburu horren itzultzaileak jarri duen *Aesculapian sugea* !! bezalako xeblekeria.

Bestalde, harrigarria dirudi, non eta mikologo eta perretxikozaleen aberri den Euskal Herri honetan, *Morchella* generoko zizak gure hizkuntzan *kar-raspinak* deitzen direla ez jakitea, edota edonondik garo-usaina darigun euskaldunok *hirusta zuria* eta *sekula-belarra* bereizten ez jakitea.

Baina, xeblereena, segur aski, beste hau dateke. Euskaraz, gaztelaniaz bezala, hitz bi ditugu geure faunako bi narrasti ezagun izendatu eta elkarrengandik bereizteko: batari *muskerra* deritzogu eta besteari, aldiz, *sugandila*, espainolez *lagarto* eta *lagartija*, hurrenez hurren.

Lehena narrasti handi eta berdea dugu, eta eskuarki gure ipar eta erdi aldeko zelai eta txaradietan bizi da (*Lacerta viridis* eta *Lacerta schreiberi* espezieak). Arabaren eta Nafarroaren hegoaldean, aldiz, bada beste mota bat, bertakoek *gardatxo* deitua⁶¹. *Sugandila*, ordea, narrasti txiki eta marroixka bati esaten diogu (normalean *Podarcis* generokoa), eta hiri eta baserri inguruko hormetan erraz aurki daiteke.

Europako beste hizkuntza batzuetan, ordea, bi-biek izen generiko berbera daukate eta adjektibo edo ‘berde, esmeralda’ edo ‘hormetakoa’ esan nahi duen eranskinen batez bereizten dituzte elkarren artean: fr. *Lézard vert* / *Lézard des murailles*, ing. *Green Lizard* / *Common wall Lizard*, al. *Smaragdeidechse* / *Mauereidechse*. Esandako *Larrea bizileku* liburu horretan, itzulpena, dirudienez, zuzenik ingelesetik egin da, eta gure arteko edozein haurrek izen banaz ongi bereizten dakienaren kontra, ilustrazioan ageri den musker politari “sugandila berdea” deitzen zaio, harrigarriro.

Muskerraren izena dela eta, lehenago *galápagoa*-z esandakoaren ildotik, Amerikan gauza interesgarria gertatu da. Hara helduriko lehen kolonizatzaile espainolek bertako kaimanak ikustean, horiek izendatzeko erdal hitzik ez zekitenez –beren kultur maila eskaseko erregistroan ez baitzeukaten *cocodrilo* hitza, garai hartan gaurko *okapi* edo *tuatara* bezain jaso– beren herriko *gardatxoekin* konparatu zituzten, eta *lagarto* izena eman. Horrela deitzen zioten duela gutxi estatubatuarrek Mexikoko erdarara itzuliriko marrazki bizidunetako pertsonaia bati, gure telebistetan orain zenbait urte agertzen zenari: *El lagarto Juancho*; baina izan, krokodiloa zen.

Ez da baina, *lagarto* horien kontua hor gelditu. Ingeles kolonoek ere ez zituzten krokodiloak ezagutzen eta horien izena espainolengandik mailegatu zuten, hura beren erara ahoskatuz. Horra hor *alligator* ezagunaren etimologia, azken buruan, erdarazko *el-lagarto*-tik abiatua. Eta ondoren ingelesetik berriz ere gaztelaniara itzuli da, *aligator* gisa.

Agian norbaitek pentsa lezake, –horixe izan baita orain arte euskaldunok era honetako arazoetan izaten dugun ohiko jokabidea– salatzen ditudan “okertxo” hauek, azken buruan, arlo bereziegiei dagozkiela, eta itzulpenok,

⁶¹ *Gardatxo* izena erdaraz ere oso arrunta da Nafarroaren hegoaldean eta, itxura osoaren arabera, bideren batetik katalanezko *llangardaix*-etik iritsi zaigu, hasierako silaba galduz, berori artikulutzat harturik, nonbait (Cf. Valentziako katalanerazko *fyrdatxo*). Gure herpetofaunako musker erraldoi honen zientzi izena, –muturretik buztanaren puntaraino 70 cm ukan ditzakeenarena– *Lacerta lepida* izan da oraintsura arte, baina azken taxonomi aldaketaren arabera badirudi hemendik aurrera *Timon lepidus* deitu beharko diogula.

segur aski estuegi juzgatzen ditudala. Bada garaia, ordea, kontura gaitezen testu berberoriek inguruko erdaraz eskaintzen direnean, horrelako xehetasunak banan-banan oso ongi zaintzen direla, haurrek eta gazteek gauzak zuzen, argi eta zehatz irakur eta ikas ditzaten. Zehaztasun eta normaltasun-kontuoi jaramonik ez egitean, gure utzikeriarekin, azken buruan, euskaldunok kultura eta zientziarako erdara horien nagusitasuna bermatu besterik ez dugu egiten, gure hizkuntza, aldiz, bigarren mailako, gutxi gorabeherako tresna eta zale gutxi batzuentzako bitxitzat zokoraturik, eta gauza serioak zehatz jakin nahi ditugunean, erdara horietara jotzea nahitaezko bihurtzen.

Beude bada hemen hitz-mitzen arteko kontsidero nahasiok, irakurleari gogoeta eta kritika eragiteko asmoz idatziak. Bukatzeko, hel bekizkio Jean Haritschelhar jaunari, Euskaltzaindiaren gidaritza hainbeste urtetan duintasun handiz eraman duenari, beti ere ipar eta hego Euskal herriaren kultur eta sentimenduen lotura nabarmentzen egin duen ahaleginagatik, ene goresmenak eta esker oneko goraintzirik bihotzetikoenak.